

ek!

eta kitto!
euskara elkartea

2023ko martxoak 24 · 1264 zenbakia



ETIOPIAKO DRAMA ARINTZEKO LANKIDETZAN



ATE IREKIAK
MARTXOAK 29

Asteazkena 17:30




ArmeriaEskola*



BATXILERGO AURREMATRIKULAK
martxoaren 27tik apirilaren 21era

943 899 262 telefonoa

013597aa@hezkuntza.net



Jardiñeta, 3 B -Eibar-

zarelako para

Izen-abizenak _____ Helbidea _____
Tfnoa / emaila _____ NAN _____
Jaiotze data _____ K/K zenbakia _____

 **eta kitto!**
euskara elkarte

Urkizu 11
943 20 09 18 - 943 20 67 76
elkarte@etakitto.eus

URTEKO KUOTAK

NORK	EKARPENA	ERRENTAN ITZULKETA	BENETAKO KOSTUA
Umeak (16 urtetik beherakoak)	5 €	1,5 €	3,5 €
Ikasle, langabetu, jubilatuek	20 €	6 €	14 €
Langileak	50 €	15 €	35 €
Beste ekarpen batzuk	160 €	45 €	115 €

Jarraitu gaitzazu!



@etakitto



etakitto.eus

Marina Perosanzek 'Muskil' izeneko laburmetraia zuzendu du eta Ermuan egongo da ikusgai hilaren 30ean. Eibartarraren lana Laburbirarako aukeratu dute eta, horrela, unibertsitaterako lan bezala hasitako proiektua Euskal Herriko hainbat tokitan egongo da ikusgai.



ARGITARATZAILEA

...eta kितto! Euskara Elkarte

HELBIDEA

Urkizu, 11 · 20600 Eibar

TELEFONOAK

943 20 67 76 / 943 20 09 18

603 598 285

FAXA 943 20 28 72

ASTEKARIAREN E-MAILAK

erredakzioa@etakitto.eus

kunikabideak@etakitto.eus

publizitatea@etakitto.eus

ELKARTEAREN E-MAILAK

elkarte@etakitto.eus

normalizazioa@etakitto.eus

ERREDAKZIO-KONTSEILUA

Ana Aizpurua, Ekhi Belar, Jose

Luis Gorostegi, Silbia Hernandez

eta Yanire Sagredo

ADMINISTRAZIOA

Marisol Uriarte

KOORDINATZAILEA

Ana Aizpurua

ERREDAKZIO-BURUA

Silbia Hernandez

DISEINUA

Maku Oruezabal

MAKETAZIOA

...eta kितto! astekarria

HIZKUNTZA ARDURA

Maidar Aranberri

PUBLIZITATEA

Belen Ulazia

TELEFONOA

943 20 67 76

AZALEKO ARGAZKIA

Egoaizia

BANAKETA-ARDURA

Idoia Labado

TIRADA

7.800 ale

INPRIMATEGIA

GERTU koop. (Oñati)

COPYRIGHT-A

...eta kितto!

LEGE-GORDAILUA

SS/430/92. ISSN: 1132 - 1679



("...eta kितto!" k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik)

Eibarko Udalak eta
Gipuzkoako Foru Aldundiak
lagundutako aldizkaria



EIBARKO UDALA



Gipuzkoako Foru Aldundia

Eskutitzak



Oharra

Datorren asteko alea (hilaren 31n kaleratuko duguna) Aste Santuaren aurrekoa izango denez, kontuan izan hurrengo astean ez dugula alerik kaleratuko. Hori dela-eta, edozein informazio, iragarki, eskela, zorion-agur... kaleratu nahi baduzue igual aurreratu beharrean izango zarete. Datorren astekoaren ondorengo alea apirilaren 14an izango duzue buzoietan.

Erredakzioa

Astean esanak



Arimen ilunpeetan ere begiratzen irakastea da helduok haurrei eskaini diezaiekegun babes handiena. Haurrak babestea da haurrei esatea mundua ez dela perfektua, ikasi egin behar dela mundua ez perfektu honetan bizitzen, ibiltzen eta baita sufritzen ere. Baina umeen irakurketetan hori guztia gozo-gozo zentsuratua baldin badago, ume kaskarin defentsarik gabeak egiten ari gara. Errealitatea ezkutatzeko biguntzen den testu bat zentsura da beti. Ideologia politikoki zuzenak neutraltzat dauka bere jokabidea, baina ez dago engainu tranposagorik.

ANGEL LERTXUNDI, idazlea

Filosofia mahai baten bueltan bildu eta, jan eta edaten zuten bitartean, hainbat gauzataz hitz egiten zuten batzuk sortutakoa izanik, badago filosofia ekitaldi puroagorik elkarte gastronomikoetan ematen dena baino? Hori bai dela filosofia egitea! Urteak pasatu arren, gauzak ez dira hainbeste aldatu: klasikoek dantzatu eta abestu ere egiten baitzuten. Erromako legioek euren entrenamendu eta ariketa militarrek dantza egiten burutzen zituzten. Senecak berak oso pentsamendu tuiteroa zuen, bakarriketa aspergarrietatik ihes egiten zuelako, eta Ovidio poeta influencer bikaina izango zen Instagram-en, berak idatzitakoak ligatzeko manualak zirelako.

EMILIO DEL RIO, Filologia Klasikoan doktorea

ORDU ALDAKETA

Asteburuko zapatutik domekarako (martxoak 26) goizaldeko 02:00ak heltzean, erloju guztiak ordubete aurreratu egin beharko ditugu, 03:00etara. Beraz, ofizialki ordubete gutxiago izango du asteburuko domekak. Udako ordutegiak urriaren 29ra arte iraungo du, negukoa berriro indarrean jarri arte.



Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera

ONDRA-JANA → Hileta ondoren, hildakoaren senitartekoek gonbidatuta egiten zen oturuntza edo janaldia. "Mari Martinguan izan dabe ondra-jana Arrate baillekuok".

1970

Ibarkurutzeko iturritik edateko ura hartzeko ilara

Gaur egun etxetik irten barik ere edateko ura esku-eskura daukagu, baina hori ez da beti hala izan. Sasoi batean, jendea iturrira joaten zen ur bila, bai lantegietan bai etxean edateko eta, sarritan, ilara luzeak egiten ziren, Eibarko Udal Artxiboko irudi honetan bezala



Farmaziak

BARIXAKUA 24
EGUNEZ Lekunberri (Isasi, 31)
ZAPATUA 25
EGUNEZ Castaño (J. Etxebarria, 7)
DOMEKA 26
EGUNEZ Elortza (J. Gisasola, 18)
ASTELEHENA 27
EGUNEZ Zulueta (San Agustín, 5)
MARTITZENA 28
EGUNEZ Mendinueta (Urkizu, 6)
EGUAZTENA 29
EGUNEZ Azkue (T. Etxebarria, 4)
EGUENA 30
EGUNEZ Zulueta (San Agustín, 5)
BARIXAKUA 31
EGUNEZ Azkue (T. Etxebarria, 4)
GAUEZ BETI, 2023an, Castaño (J. Etxebarria, 7)

Telefono jakingarriak

SOS deiak	112
Pegora	010
Udaletxea	943 70 84 00
Portalea	943 70 84 39
Udaltzaingoa	943 70 84 24
Mankomunitatea	943 70 07 99
Debegesa	943 82 01 10
KIUB	943 20 38 43
Kirol Patronatoa	943 20 32 40
Epaitegia	943 03 34 00
Iberdrola	900 17 11 71
Naturgas	902 12 34 56
DYA Larrialdiak	943 46 46 22
Gurutze Gorria	943 22 22 22
Eibar Ospitalea	943 03 29 00
Mendaro ospitala	943 03 28 00
Anbulategia	943 03 25 00
Torrekua	943 03 26 50
Errepedeak	902 11 20 88
Ertzaintza	943 53 17 00
Eusko Tren	944 33 33 33
Lurraldebus	900 30 03 40
Pesa	900 12 14 00
Taxiak	943 20 30 71 / 943 20 13 25
Andretxea	943 70 08 28
Alkohol. Anon.	629 14 18 74
Al-Anon / Alateen	650 26 59 63
Grupo Egund Bat (Jokozale	
Anonimo eta Familiak)	699 37 75 20

Hildakoak

- **Iñaki Pascual Angiozar.** 96 urte. 2023-03-14.
- **Mitxel Basterrika Leturiondo.** 76 urte. 2023-03-15.
- **Alicia Albizu Agirrebeña.** 92 urte. 2023-03-16.
- **Miren Ansola Gisasola.** 90 urte. 2023-03-17.
- **Isabel Perez Dominguez.** 87 urte. 2023-03-17.
- **Francisca Santiago Santiago.** 91 urte. 2023-03-20.

Jaiotakoak

- **Suhar Cid Eguren.** 2023-03-09.
- **Iria Cruz Simon.** 2023-03-11.
- **Yousuf Massaoudi.** 2023-03-12.
- **Uxue Bilbao Gonzalez.** 2023-03-18.
- **Neira Vero Kanga Kabamba.** 2023-03-20.



Bazkideen urteko Batzar Nagusia egin du aste honetan ...eta kitto! Euskara Elkarteak

Martitzenean elkartearen egintzan egindako Urteko Batzarrean aurkeztu zituen...eta kitto! Euskara Elkarteak iazko balorazioa eta balantzea eta 2023erako proposamena eta aurrekontua. Iazkoa “inflexio urtea” izan zela nabarmentu zuten elkartetik, hainbat aldaketa egin zirela gaineratuta. Iaz, besteak beste, Ongietorri programa berreskuratzea lortu zen. Horrekin batera, Debabarreneko hedabide proiektuaren garapenean aurrera egin zen, eta irudi berria estreinatu zen.

2023rako asmo nagusia “elkartearen izaera eta jarduna hobe-

to ezagutarazi eta gizarteratzea” izango da. Bazkide-kuotetan ez da aldaketarik egongo: 5 euro 16 urtetik beherakoentzat; 20 euro langabetu, ikasle, jubilatue eta etxe-koandrentzat; eta 50 euro lanean ari direnentzat. Eta zuzendari-tzarako proposamena onartuta, horrela osatuta geratu da: presidentea, Ekaitz Juaristi; presidente ordea, Gorka Guenaga; idazkaria, Mainer Aranberri; diruzaina, Marisol Uriarte; eta bokalak, Ana Aizpurua, Julian Fernandez, Ane Lizarralde, Jon Mardaras, Anartz Mitxelen, Jon Mikel Mugika eta Iraia Muñoa.

Marina Azpiazuk eta Roberto Moralek irabazi dute Errigoraren otarra

Nafarroa hegoalde eta erdialdeko oliba-olio birjina estra, kontserbak, arroza, pasta, lekaleak, fruitu lehorrak eta bestelako produktuak dituzten Errigora proiektuaren bi otar zozketatu ditugu eta Marina Azpiazu eta Roberto Moral izan dira irabazleak. Zorionak!



"Pintxopote+1" antolatu du Ekingune elkarteak datorren asterako

Datorren astean, martxoaren 30ean (eguna), bi proiektu aurkeztuko ditu Ekingune Ekintzaileen Elkarteak, 19:00etatik aurrera Kultur egingo den “PINTXOPOTE+1” ekitaldian. Elkartetik diotenez, “enpresaburua edo ekintzailea bazara edo Ekinguneko komunitatea ezagutu nahi baduzu, ez galdu datorren astean egingo dugun ekitaldia. Bi proiektu aurkeztuko ditugu, mikro irekia egongo da bertaratzaren diru guztiek aurkezteko aukera izan dezaten, eta, jakina, networkinga pintxoz eta edariz lagunduta egongo da”. Pintxoak parte-hartzaileen arabera eskatu behar dituztela jakinarazi dute. Beraz, izena eman beharko da info@ekingune.com helbidean edo WhatsApp bidez 623 558 594 zenbakian.



Andretxea berriraino zuntz optikoa eramateko lanak

Zuntz optikoa udaletxetik Isasira, Andretxea berriara bideratzeko lanak Txoko pareko bidegurutzean eta Andretxearen parekoan egingo dira eta, beraz, trafikoari ahalik eta gutxien eragiteko, gauzez ari dira beharrean. Aste honetan bezala, astelehen eta martitzenean ere horrela egingo dute, 22:30etik 05:15era bitartean.



Ibarratik Misiko Taldeari laguntzeko azoka egingo dute bihar Helmet Hausen

Ibarratik Misiko Taldea Gobernu Kanpoko Erakundeari laguntzeko azoka solidarioa egingo dute bihar Helmet House-n (Coliseo aldamenean), goizeko 11:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 19:00etara. Bertan, Indiatic ekarritako fularrak, imitaziozko bixiak, kimonoak eta beste gauza asko erosteko aukera egongo da. Horrekin batera, Ibarako piparrak eta beste produktu batzuk ere egongo dira salgai. Azokari esker biltzen den dirua GKE honek Indian eta Hondurasen martxan dauzkan lan-kidetza proiektuak finantzatzeko erabiliko da.



AGME-n beharrez aritu zirenen bazkaria

Jubilatu zirenetik elkartu barik urte mordera eman eta gero, aurreko barixakuan bazkaria egin zuten AGME enpresan lanean ibilitako lagunek. Hamabost bat urte denak elkarrekin egon barik zeuden eta, normala den bezala, ederto ibili zi-

ren aspaldiko kontuak gogoratzen. Gainera, kanpoan bizi diren lagun batzuk ere etorri ziren bazkariaren aitzakiarekin. Horrelako egun biribila eta gero, hemendik aurrera urtero bazkaria egiteko asmoarekin agurtu ziren.

Eibarren AKEBAI-k 2022. urteko memoria igo du plataformaren web orrira

Eibarren AKEBAI plataformak 2022ko memoriaren berri eman du, Lehen zatian 2022ko ekintza plana ikus daiteke (helburuak eta ekintzak). Ondoren, Akekideen Batzarra eta Ekipoaren osaketa eta

funtzionamenduari buruzko datuak ematen dira, eta, jarraian, 2022an landutako hainbat gairi buruzko informazioa irakur daiteke. Memoria osoa PDF formatuan deskargatu daiteke (akebai.eus).

FUNEUSKADI
Funeraria

FUNERARIA MUGICA
Funeraria

TANATORIO EIBAR

TANATORIO BERRITARIO EGUILBAR

24 orduko zerbitzu iraunkorra T. 943 201 951
www.funeuskadi.com

<p>Eibar: Otaola, 27</p> <p>Eibarko bulegoa: Bidebarrieta, 20</p>	<p>Elgoibar: Xialion, s/n. SIGMA Industriaidea (Glasoko hilerriaren ondoan)</p> <p>Ermuako bulegoa: Marques de Valdespina, 16</p>
---	---

Eibar · Elgoibar · Ermua · Bilbo · Barakaldo · Leloa · Getxo · Sestao
Portugalete · Santurtzi · Basauri · Galdakao

Mitxel Basterrika Leturiondo

1946/09/17
2023/03/15

Eskerrik asko herria egiteagatik

EIBARKO **sortu**



Eibarko sozialistek Untzagan egindako Herriaren Etxearen fatxada. INDALECIO OJANGUREN

Eibarko Sozialisten Elkartearen 125 urteak ospatzeko ekitaldia egingo da bihar


Eibarko Sozialisten Elkartearen 125. urteurrena ospatuko du bihar PSE-EEK, goizeko 11:30ean Erreal Plazan hasiko den ekitaldi politikoarekin. Bertan, Santos Cerdán PSOE-ko antolakuntza idazkariak, Eneko Andueza PSE-EEKo idazkari nagusiak, Jose Ignacio Asensio Gipuzkoako PSE-EEKo idazkari nagusiak, Jon Iraola Eibarko alkateak eta Ana Telleria Eibarko PSE-EEKo idazkari nagusiak hartuko dute

parte. Eibarko sozialismoaren aitzindariak gogora ekartzeko bihar egingo dena izango da egitarauko ekitaldi nagusia.

125 urteak ospatzeko egitaraua otsailaren 21ean hasi zen, Untzagako Herriaren Etxean inauguratu zuten erakusketarekin. Ospakizunak apirilaren 20an amaituko dira, Armeria Eskolan izango den Eibarko Elkarte Sozialistaren 125 urteei buruzko dokumentalaren aurkezpenarekin.

Ekialdea Bai auzo elkartearen erakusketa Ipuruako merkatu plazan

No al paseo que nos entierra-Ekialdea Bai Auzo Elkarteak erakusketa antolatu du asteburu honetarako Ipuruako Merkatu Plazan. Elkartetik adierazi digutenez, “gure helburu nagusia Auzo Elkarteak trenbidea estaltzeko proiektu horren inguruan duen ikuspuntua ezagutaraztea da”. Egiten duten hirugarren erakusketa da. Gaur 18:00etatik 20:00etara egongo da zabalik; bihar 11:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 20:00etara; eta, domekan, 11:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 18:00etara.



Herritarrak ere "Planetaren Ordua" ekimenarekin bat egiteko gonbidapena

Udalak aurtien ere bat egingo du “Planetaren Ordua” ekimenarekin eta eibartar guztiak gauza bera egitera animatu nahi dituzte. Aldaketa klimatikoaren aurkako eta naturaren aldeko mugimendu global honetan parte hartzeko egin behar den gauza bakarria argia ordubetez itzaltzea da eta, horrela, bihar 20:30etik 21:30era bitartean, ordubetez itzaliko dira Untzaga Plazako fokuak eta udaletxearen

fatxadako erlojuaren argiak, “klima-aldaketaren aurkako keinu simboliko gisa”. Mundu mailako ekimen honen bultzatzaile den WWF naturaren defentsarako elkarteak adierazi duenez, “hamarkada honen inflexio-puntua izan behar du, natura eta klima berreskuratzen hasteko”. Bigarrenaz, #KM-PorElPlaneta #VueltaAlPlaneta ere abiatu dute. Informazio guztia Interneten dago.



Lanbideren kontrol burokratiko eta poliziala gelditzeko eskatu dute

Deba Bailarako Etxebizitza Sindikatua elkarretaratzea egin zuen aurreko barixakuan, Lanbideren bulego aurrean, "kontrol burokratiko eta poliziala gelditzeko" dinamikaren baitan. Salatzen dutenez, "Lanbidek azken urteotan polizia bidali du RGIa jasotzen duten familien etxeetara. Abenduaren 22an onartutako RGIaren erreforma ez du hau aldatuko. Erreforma honek laguntzen zenbatekoak handitzen baditu ere, autoritarismo sakontzen du. Babes sozialeko sistemaren eginbehar nagusia miseriaren kudeaketa da eta honen aurrean ezinbestekoa da autoritarismoaren aurka borrokatzea".

Eibarko bost tokitan asfaltatu berria egiteko lanak esleitu ditu Udalak

Udalak asfaltatze-plan berri bat adjudikatu du eta laster hasiko dira zolatze-lanak. Oraingo honetan, Asola Igartza, Karlos Elgezua, Egogain eta Urkizu pasealekuan egingo dira lanak, eta baita Ixua eta Usartza lotzen dituen bidean ere. Guztira, ia 5.500 metro kuadroan berriztuko da zoladura. Yarrantu SA enpresari adjudikatu zaizkio lanak. Aurrekontua 135.712,11 eurokoa da (BEZa barne) eta egikaritze epea 8 astekoa. Aipatu behar da, baita ere, ahal dela, lanak beti egingo direla bidearen zati bat trafikoa zabalik

lagata, eta igarobide alternatiboak jarritz. Hala ere, bidearen zabalerara dela eta, beharrezkoa izango da trafikoa etetea, eta lan horietako batzuk gaueko orduetuan egitea, trafikoa ahalik eta gutxien eragiteko. Nolanahi ere, informazio hori obra hasi aurretik jakinaraziko zaie bizilagunei. Alkatearen berbetan, "Eibarko kaleetatik ibilgailuak igarotzeak asfaltaren etengabea narriadura eragiten du. Horregatik, urtero asfaltatze-plan bat jartzen dugu martxan, premia gehien duten lekuetan jarduteko".

Maritxu Echaburu Maguregui

2022/03/22

ESKERRIK ASKO
une gogor hauetan
gurekin egon zarien
lagun eta familiako
guztioi.

- ETXEKUAK -



Maritxu Echaburu Maguregui

2023/03/06

"Juan zara
101 urterekin
Nahiz eta gu
geratu penarekin
Beti izango
zaitugu gurekin"

- ETXEKUAK -





Felisa Ventura ere praktikante, erizain eta emagin modura aritu zen, besteak beste Ziriako Agirrerekin, Amañako Tuberkulosoen Erietxean (1930). NEREA VENTURA FONDOA.

Motor batean mugitzen zen batetik bestera. Aurea Mendizabal praktikantea, takoidun zapatetan joaten zen. Bai medikuek eta bai erizainek, motorra erabiltzen zuten, azkarragoa zelako.

Motorrean bisitatzen zituzten gaixoak

Andresa Zabala Abasolo
(1929)



Andresa Zabala 1929an jaio zen, Eskoriatzako Bolibar auzoan. Batxilergoa Gasteizen ikasi zuen eta gero Bilbon erizain eta emagin ikasketak egin zituen. Eibarren, lehenik emagin bezala lanean ibili zen amategia sortu aurretik eta geroago erizain bezala. Etxeetan bisitak egiten zituen eta anbulatorioan ere kontsulta pasatzen zuen. ALFA-ko lantegiak langileen seme-alabentzat zabaldu zuen kontsultategiko erizaina ere izan zen. *Ego Ibarra Batzordearen (Eibarko Udala) "60ak eta Trantsizioa Eibarren: 1968-1980" proiektuaren baitan egin zen elkarrizketa.*

Andresa Zabalarri grabatutako pasarteetako baten transkripzioa

[Gabaz ibilli bihar zifnan?] Ez zan asko. [Ta, Andresi, basarrietara juan bihar izaten zifnan?] Ez. Si ponen coche sí, lo demás no. [Porque zuk kotxerik ez zekazun...] Motorra. [Motorra zekazun zuk?] Mobylette (...). [Ta Mobylettakin juaten zifnan tokatzen jatzun tokira?] Carretera de Elgeta, carretera de Arrate... Basarrixak gutxi. [Besteren batek egitten zittun basarrixak?] Aureak (Aurea Mendizabalek), pero aquella no hacía tantos. Con tacones, andando, no se trabaja. [Ta zergaittik esan dozu kotxia ipintzen bazeben...] Gauza bat grabia bada, ta ez badago beste modurik sartzeko, ba orduan kotxia. [Ta kotxia zeifnek ipintzen zeban?] Nik ez. Mobylette motorra. Basiliok, siendo médico de niños, también usaba Mobylette, aunque tuviese coche (...)

47,2 milioi euroko aurrekontua onartu du Udalbatzak

Eguazten goizean udaletxean egindako Osoko Bilkuran eman zitzaion behin-behineko onespena 2023ko ekitaldirako 47.238.430 euroko udal aurrekontuari, PSE-EEren (9) aldeko botoekin eta Eibarko EAJ-PNVren (4) eta EH-Bilduren (5) abstentzioarekin; Elkarrekin Podemos Eibarrek (1), berriz, kontra bozkatu zuen.

Udalaren Osoko Bilkurak, eguazten goizean egindako ezohiko bilkuran, hasierako onarpema eman zien 2023ko ekitaldirako aurrekontu orokorrari eta dagozkion eranskinei, 47.238.430 euroko zenbatekoarekin. Aurreko urtekoarekin alderatuz gero, 2023rako aurrekontuan 2 milioi eurotik gorako gehikuntza dago. Alkatetzako memorian jaso dutenez, “gehikuntza hori, funtsean, 2023rako aurreikusitako Foru Funtzari zor zaio, 22.534.445 eurokoa, Gipuzkoako Foru Aldundiak emandako aurrekontuak erakusten duen bezala. Zenbateko hori 2022rako aurreikusitakoa (21.257.411,06 euro) baino askoz handiagoa da”.

Aurrekontuei behin-behineko onespema eman aurretik, ohikoa den bezala, udal talde bakoitzeko bozeramaileei hitza eman zitzaion, ordezkari gutxien duen alderdiarekin hasita. Horrela, kontrako



botua eman zuen ordezkari bakarra, Elkarrekin Podemoseko Isabel Fernandez Pejenaute izan zen lehena berba egiten. Beste ezer baino lehen, aurrekontuak onartzeko “oso berandu” ibili direla kritikatu zuen eta, jarraian, bere taldeak aurrekontu proposamenari aurkeztutako zuzenketak gogora ekartzen hasi zen, “hasieratik ia proposamen guztiak baztertu zituztela” gaineratuta, hortik akordiorik ez lortzea eta kontrako botua ematea.

EH Bilduko Gorka Errasti, bestalde, pozik agertu zen, aurtengo aurrekontuaren inguruan sozialistekin akordioa lortu dutela eta: “Horri esker, eibartar guztien bizitza hobetzeko proiektuetan lan egiteko aukera izango dugu. Besteak beste, Urkiko kanposantua egokitu eta beste erabilera batzuetarako toki lortzeko, adibidez. Edo Barrena-Barakaldo ingurua hobetzeko eta bertako parkea familiekin ba-



PSE-EEko aldeko botuekin onartu da aurtengo aurrekontua. EAJ eta EH Bildu abstenitu egin dira eta Elkarrekin Podemosek eman du kontrako boto bakarra. SILBIA HERNANDEZA

tera birdiseinatzeko, hutsik dauden etxebizitzaren inguruko diagnostikoa egin, nagusientzat etxe-komunitate bat sortzeko pausoak eman, Eibar-ko ekoizleak ezagutzera emateko gida egin, eta kultura arloan sorkuntzara salto egin”.

Adostutako proiektuak betetzea EAJ-PNV-ko Josu Mendicutek, berriz, aurreko astean esan zuenaren bidetik, Iraola alkateari zuzendu zitzaion, “alkate batek bulegoan, eta ez kamera aurrean” lan egin behar duela esateko, eta akordiorako beraien borondatea berretsi zuen. Horretarako baldintza bakarra aurretik adostutako proiektuak betetzea eskatu zutela ere adierazi zuen Mendicutek. Hori dela eta, Ana Telleriak argi laga nahi izan zuen hori ez dela egia, “partida batzuk jaisatea eragingo luketen zuzenketak ere bazeudelako. Horiek onartzu

>>> Egingo diren jarduketan artean, ambulatorio ingurua eta Julian Etxeberria kalea hobetzeko lanak eta Torrekuako ambulatorioa moldatzeko lanak daude

>>> EH Bilduk eta PSE-EEK lortu duten akordioari esker Ekialdea hobetzeko hainbat proiektu eramango dira aurrera, inguru horretan bizi direnen mesederako

gero, guretzat zein herritarrentzat garrantzitsuak diren hainbat proiektu bertan behera laga beharko genituzke, nahitaez, eta ez gaude horretarako prest”.

Aste honetako Osoko Bilkuran behin-behineko onarpenera lortu duen duen Aurrekontu Proposamenaren jasotako ekintza esan-

guratsuenetako batzuk inbertsioen atalarekin lotuta daude, “6,72 miloi euroraino igo dena, hiri-inguruneak hobetzeko, irisgarritasuna hobetzeko eta eraikinak egokitzeko proiektuak egitea ahalbidetzeko, eraikin horiei duten balioa eman eta erabilera berriak ezartzeko”. 2023an egin-

go diren jardueren artean, honako hauek nabarmentzen dira: anbulatorio ingurua eta Julián Etxeberria kalearen ingurua berriz urbanizatzea, hirigunean oinezkoentzako ardatz bihurtzeko; Torrequako anbulatorio zaharra birmoldatzeko obra, Amaña eta Legarre auzoak espazio anitzeko ekipamendu horren erabilera nagusia jubilatuen etxearena izango da; Igogailua eraikitzea, Barakaldo kalea —Electrociclos ondoan— Estaziño eta Azitain arteko trenbidearen gaineko pasealekuarekin lotzeko, Maltzaga-Elgoibar bidegorriarekin lotuz; Legarre kaleko 8. zenbakiko plazaren zoladura berritzea; edota Bustinduitarren kalea eta Arragueta kalea berrurbanizatzea.

Alkatetzaren memorian jasotzen denez, “obra horien hasierako faseek bat egingo dute denboran beste obra garrantzitsu batzuk abian jartzearekin. Oso aurreratuta daude hauen lanak eta laster hasi ahal izango dira erabiltzen: Ubitxako igogailuak eta Andretxea berria. Eta denbora gutxi barru egiten hasiko

diren beste batzuk ere, hala nola Mekolako igogailuak”.

Baserri- edo landa-eremuan, Andirao baserriaren elkartearekin adostu da landa-azpiegiturarako aurrekontupartida 350.000 euro gehitzea urteko, bai ekitaldi honetan, bai hurrengo 4 ekitaldietan; hala, bailara guztietako pistak berritzeko eta hobetzeko eskaerei erantzunez.

Gainera, Eibarko ikasleek instalazio onenez goza dezaten eta iaz Eibarko ikastetxeetan obra garrantzitsuak egin ondoren, beste egiteko batzuen artean, San Andres eta Amañako eskoletako hezetasunak konpontzeari ekingo zaio, 150.000 eurotik gorako lanak.

Ingurumena, gizarte-babesa eta kultura

Ingurumeneko Aurrekontuak goranzko joerari eusten dio. 2022an ia 4 aldiz biderkatu zen aurreko ekitaldiarekin alderatuta, eta 700.000 euro ingurura hurbiltzen ari da. Horrez gain, milioi bat euro inguruko inbertsioa egin du Udalak gure herrian euskararen erabilera eta irakaskuntza sustatzeko.

Gizarte-babesari dagokionez, udal alor horretan dauden programa guztiak batuta ateratzen den zenbatekoa 5.181.325 eurokoa da; aurreko ekitaldian baino % 8,55 gehiago. Halaber, 478.000 euroko aurrekontua dago generoberdintasuna sustatzeko; 2022ko ekitaldikoarekin alderatuta, % 73an igo da.

Kulturara bideratutako aurrekontuari dagokionez, 450.000 euroan gehitu da, 2022ko aurrekontuaren konparatuta, % 11,7, eta 4.300.339 euroraino iritsi da. Azkenik, aipatzekoa da Gazteria Arloa, 130.000 euro gehiagoko aurrekontuarekin, adin horretarako berariaz prestatutako programak garatzeko.

Aurrekontuaren dokumentazioa

Alkatetzaren memoriari, kapitulu-kako udal-aurrekontuari, diru-sarrerren eta gastuen aurrekontuari eta diru-laguntza izendunei buruzko eranskinari buruzko dokumentuak eskuragarri daude jada udalaren webgunean, “Aurrekontua 2023” atalean.

AURREKONTUAREN LABURPENA

SARRERAK

ZUZENEKO ZERGAK	7.806.100,00
ZEHARKAKO ZERGAK	550.000,00
TASAK ETA BESTELAKO ZERGAK	2.531.708,48
TRANSFERENTZIA ARRUNTAK	25.095.929,62
ONDARE SARRERAK	140.013,18
INBERTSIO ERREALEN BESTERENGAN	695.000,00
KAPITAL TRANSFERENTZIAK	200.077,03
FINANTZA-AKTIBOAK	14.200,00
FINANTZA PASIBOAK	10.205.402,30

SARRERAK GUZTIRA: 47.238.430,61

GASTUAK

PERTSONAL GASTUAK	15.552.243,41
GASTUAK ONDASUN ARRUNT /ZERBITZUETAN	16.454.102,38
FINANTZA GASTUAK	75.100,00
TRANSFERENTZIA ARRUNTAK	6.670.413,99
KREDITU GLOBALA ETA BESTE USTEKABEAK	
INBERTSIO ERREALAK	7.370.803,00
KAPITAL-TRANSFERENTZIAK	677.606,29
FINANTZA-AKTIBOAK	40.200,00
FINANTZA PASIBOAK	397.961,54

GASTUK GUZTIRA: 47.238.430,61

Hondamendiaren bihotzeraino bidaiian joan dira Egoaiziatik



Lierni Fernandez eta Iñaki Serrano Egoaizia Gobernuz Kanpoko Erakundeko kideak Etiopia iparraldeko Tigray eskualdean egon dira, krisi humanitario larria eragin duen bi urteko gerra zibilaren ondoren bertako egoera gertutik ezagutzeko eta Egoaiziak abian jarri dituen lankidetzaproiektuen jarraipena egiteko.

Laguntza humanitarioko proiektuei laguntzeko



Handik bueltan kooperante biek azaldu dutenez, “2020ko azaroaz geroztik gatazka armatua garatu da Tigray Askatzeko Herri Frontearen (FPLT, Tigrayn agintean dagoen alderdia) eta Etiopiako gobernu federalaren artean, azken hau Amhara talde etnikoaren miliziek eta tropa eritrearrek lagunduta. Gatazkak izugarrikerian murgildu du lurraldea, 2022ko azaroan Amerikako Estatu Batuek bultzatuta edo erdi-behartuta liskarrak etetea erabaki zuten arte, AEBk gatazkaren eremua egonkortzeko interesa zuelako”.

Tigrayko etniakoak Etiopiako biztanleria osoaren %6 edo 7 baino ez dira, baina urteetan herrialdeko indar politikoa nagusia izan ziren. Diotenez, “2018tik aurrera, ordea, gobernu federalak Tigrayko agintarien garbiketa hasi zuen, eta Abiy Ahmed Etiopiako lehen ministroak errepresaliak hartu ditu FPLTren eta Tigrayko herritarren aurka. Egun batetik bestera, gober-

nu zentralak Tigrayko lurteko eta aireko mugak itxi eta produktuak eskualdera sartzeko modua ezabatu zuen. Elektrizitatea eten zuen eta telekomunikazioak eta kapitalen mugimendua blokeatu zituen, bankuetatik dirua ateratzea ezinezkoa izan zedin. Oinarrizko elikagaien eta osasun-horniduren falta gertatu zen, merkatuko prezioen inflazioarekin batera, eta duela gutxi arte ez da utzi elikagaien eta sendagaien laguntza humanitaria ematen”.

Krisi humanitario larria

Gauzak horrela, gerrak krisi humanitario larria eragin du, etnia minoritarioaren aurkako giza eskubideen urraketa larriekin. 600.000 lagun inguru hil dira, 5 milioi legunek etxetik alde egin dute eta barne-desplazatuak izaten jarraitzen dute, azpiegitura kritiko asko (osasun-zentroak, ur-hornidura) eta nekazaritza-baliabide asko suntsitu egin dira, askok senideak, ondasunak eta bizirauteko baliabideak galdu dituzte, biztanleriak gosea



Iñaki Serrano eta Lierni Fernandez otsailaren azken astean egon ziren Etiopiako Tigray eskualdean, Egoaziak bertan martxan jarritako proiektu humanitarioa ikuskatzen.

eta desnutrizioa jasaten ditu inguru pobretu batean, beti ere lehorte laztzak jasateko arriskuaren menpe...

Egoera larri horren aurrean, Egoaziak hainbat proiektu abiatu ditu tokiko bazkideen bitartez eta. Gipuzkoako Foru Aldundiarren eta Rioja Alta Fundazioaren finantzaketari esker, "kaltetutako landa-komunitateen errehabilitazio sozioekonomikoan laguntzeko helburu orokorrarekin, elikagaien segurtasuna hobetuz eta bizirauteko bitartekoak berreskuratuz, eta arreta berezia eskainiz sexu-indarkeriaren biktima diren emakumei eta familiaburu diren emakumei (senarrek gerran edo espetxean jarraitzen dute oraindik), aberri-ratutako desplazatuei eta gazteei. Zehazki, alde batetik, laguntza psikosozialarekin lotutako jarduerak egin nahi dira, gerraren biktima izan diren komunitateak berriro gaitzeko eta ahalduntzeko, moti-

Gerrak krisi humanitario larria eragin du, etnia minoritarioaren aurkako giza eskubideen urraketa larriekin

Lantegiak itxita daude oraindik eta jendeak bi urte daramatza soldatarik kobratu gabe. Eskolak eta unibertsitateak ere itxita daude.

bazio-prestakuntzaren eta informazio-trukearen bidez, bereziki kafe-zeremoniak eginez".

Etiopiara joandako boluntarioek kontatu dutenez, "komunitate traumatizatu bat aurkitu dugu han. Herriarrek kanpoko tropen (indar eritrearrak, federalak eta amharak) dronen, bonben eta artilleriaren bonbardaketa jasan dute, eta azpiegitura eta jabetza asko arpilatu eta suntsitu dizkiete. Oraindik ere ikeratuta daude".

Egoiaziaren proiektuak laguntza ekonomikoa ematea du helburu, nekazaritza eta abeltzaintza prestakuntzaren bidez, eta laborantzahaziak, nekazaritza-tresnak, ardiak eta oiloak, bai eta ezta ekoizteko erlauntzak erosten eta banatzen.

Mekelen, Tigrayko hiriburuan, gobernuko Arriskuak eta Hondamendiak Kudeatzeko Batzordearekin bildu ziren, eta oraindik ere kalteak ebaluatzen ari direla esan

Jendeak oso egoera zaila bizi du eta bi urtetan ez dute kanpoko laguntzarik jaso. Egoaiziak abiatutako proiektua izan da lehena.



zieten. Horrez gain, mundu mailako erakunde humanitario nagusien ordezkarien bilera batera ere joan ziren.

Abeltzain eta nekazarientzat animaliak eta ekipoak

Bi egunez Agulaeko landa-eremua bisitatu zuten, “non tropa eritrearrek nahi izan zuten guztia egiten ibili ziren: zibilak exekutatzen, etxeak arpilatzen, emakumeak bortxatzen...”. Bisitan, 80 ardi eta 120 oilo banatu zizkieten sexu-indarkeriatik bizirik atera diren emakumeak buru dituzten 80 nekazari familiari. Ereindako landa eremuetara ere joan ziren eta nekazaritza-materialeko 40 ekipo eta produktu kimikoetako 40 ekipo eman zizkieten nekazari txikiei. Kooperanteen berbetan, “jendeak oso egoera zaila bizi izan



Lankidetzaren proiektuaren helburu nagusia kaltetutako landa-komunitateen errehabilitazio sozioekonomikoan laguntzea da.

du eta bizitzen jarraitzen du. Gure laguntza oso ondo hartu zuten, bi urtetan ez baitute kanpoko laguntzarik jaso. Bereziki hunkigarria izan zen bortxaketak jasan zituzten emakumeen testigantza zuzena jasotzea”.

Wukrora ere joan ziren. Lierni zazpi urtez egon zen Etiopian eta horietako bost bertan eman zituen, lankidetzaren lanean. Bi urtez lagunekin berba egin barik pasatu eta

gero, beraien beldurrak, sufrimenduak eta gerra-gertakariak kontatu zizkieten: “Han guztiek daukate kontatzeko istorioren bat”.

Egoaizia Gobernu Kanpoko Erakunde 1999tik ari da Eibarren lanean nazioarteko lankidetzaren, kontsumo arduratsuen edo bizidun merkataritzaren arloetan, bereziki hezkuntza, landa-eremuko emakumeen ahalduntzea eta tokiko garapen ekonomikoa sustatuz.

Haizeak harrotuta Debabarreanean

dkt
Debabarreko
Komunikazio
Taldea

Green Capital Energy enpresak Karakate-Irurutzeta gainean parke eolikoak egiteko proiektua aurkeztu du, eta horrekin batera, orain dela 20 urteko mamuak berpiztu dira Elgoibarren eta Soraluzen. Baina horrez gain, Debabarreneko beste mendi batzuk ere parke eolikoak jartzeko leku optimo gisa izendatu dituzte, eta horrek guztiak haizeak harrotu ditu Debabarrenean. Orriotan aurkituko duzue Debabarrenerako parke eolikei buruzko informazioa.



Eolikoetarako gune optimoak

SORALUZEN, EIBARREN, MENDARON, DEBAN, ITZIARREN ETA MUTRIKUN DAUDE

Eusko Jaurlaritzak Euskadiko Energia Berriztagarrien Lurralde Plan Sektoriala (LPS) ari da tramitatzen. Hasierako dokumentua idatzita eta ikusgai dago, Eusko Jaurlaritzaren euskadi.eus atarian.

Energien Plan Sektorialak zazpi energia berriztagarri ditu aztergai: eguzki-energia fotovoltaikoa, eguzki-energia termikoa, energia eolikoa, energia ozeanikoa, biomasaren energia, energia geotermikoa eta energia mini-hidraulikoa. Besteak beste, energia mota horiek sortzeko eta lortzeko Euskal Autonomia Erkidegoko eremu optimoak markatzen ditu eta aproposak ez diren eremuak baztertu.

Plan Sektorialaren tramitazio prozesuan erakundeek, elkarreek, eragileek... zuzenketak zein proposamenak egin dituzte, beraz, litekeena da aldagetak izatea behin betiko LPS-ak. Eusko Jaurlaritzak udarako nahi du onartu Energia Berriztagarrien LPSa eta behin betiko plana hura izango da.

%21etik %16,1 eolikoetatik

Eusko Jaurlaritzaren hasierako LPSaren arabera, 2030erako, Gipuzkoa, Araba eta Bizkaian kontsumitzen den energiaren %21 iturri berriztagarrietatik sortzea

lortu nahi dute, %16 bertan sortuta eta %5 kanpotik ekarrita.

Bertan sortutako energia berriztagarriari dagokionez, berriztagarriaren aldeko apustua egiten du Jaurlaritzak. Gaur egun, Gipuzkoa, Araba eta Bizkaian, 153 MW produzitzen dira dorre eolikoaren bidez eta helburua da 783 MW produzitzea. Hau da, zazpi aldiz biderkatzen du zentral eolikoaren bidez ekoitzi nahi den energia berriztagarri kopurua.

Zuzenean aplikatzekoak

Hori ahalbidetu eta bultzatzeko, Energia Berriztagarrien LPSaren aurrerapenak honakoa dio: "Haize-aprobetxamenduari lotutako eskala handiko ekoizpeneko energia berriztagarriko instalazioak 1. mailako eremu optimo garbiak eta 2. mailako eremu optimo garbiak izenekoetan ezartzea erabilera edo jarduera onargarri-

**Berriztagarrien
LPSaren aurrerapenak
zortzi gune optimo
bereizi ditu
Debabarrenean**

tzat jotzen da, Lurralde Plan Sektorial hau indarrean sartzen denetik zuzenean aplikatzeko, eta ez da beharrezkoa izango inolako hirigintza-plangintzaren bidez garatzea, lurzorua sailkapena eta kalifikazioa edozein izanik ere; hala ere, aplikagarri den sektore-araudiaren arabera, beharrezkoak diren gainerako baimeak, lizentziak eta onarpenak beharko dira".

Gune optimoei dagokionez, lehen mailakoak dira urtean 3.350 orduz funtzionatzeko ahalmena izango luketen lekuak; bigarren mailakoetan, berriz, urtean 2.650 ordu baino gehiagoan egon ahalko lirakeke martxan dorre eolikoak.

Debabarrenean, zortzi

LPSak, 33 eremutan, 139 lerrokada bereizi ditu zentral eolikoak egiteko gune optimo modura. Gipuzkoa, Araba eta Bizkaiko 33 esparru horietatik zortzi Debabarrenean daude, guztiak ere mendietan.

Soraluze-Elgoibar

Debabarrenean, oraingoan, zentral eoliko bat eraikitzeko eskaera bakarra dago aurkeztuta. Green Capital enpresak (Capital Energy multinazionala) aurkeztu zuen

Argitaratzailea: Debabarreneko Komunikazio Taldea

Erredakzioa: Ainhoa Andonegi, Ekhi Belar, Dorleta Vidal, Ubane Madera, Izaro Aulestiarte

Diseinua eta maketazioa: Ekhi Belar

Azaleko irudia: Pexels

Tirada: 18.425 ale





Karakate. Argazkia: Egoitz Unamuno.

egitasmoa Soraluzeko zein Elgoibarko udaletan, 2022ko otsailean.

Aurreproiektuaren arabera, bi aerosorgailu ezarriko litzukete Karakatetik Gizaburuagara bitartean. Dorre bakoitza 101 metro altu izango litzateke eta barruan, eskailerak, igogailua eta plataformak izango litzuzke. Hegal bakoitza, berriz, 77 metro luze izango litzateke. Beraz, hegal eta guzti, aerosorgailu bakoitzak 180 metro inguruko garaiera izango luke.

Konparatze aldera, dorreak Soraluzeko elizdorrearen garaieraren halako lau neurtuko luke, Elgoibarko Mintxeta kirolgunea baino luzeagoa izango litzateke edo Bilboko Iberdrola dorrea baino handiagoa (165 metro ditu hark).

Dorreen oinarriek, berriz, 26 metroko diametroa izango luke eta hiru metroko sakonera, lurpean. Potentziari dagokionez, aerosorgailu bakoitzak, bataz beste, 4.800 kw-eko potentzia sortuko luke.

Elgoibarko azpiestaziora

Aurreproiektuan zehazten dutenez, zentralak sortzen duen energia Elgoibarko azpiestazio elektrikorako eroango lukete, Azkueko zentralera (jabea Iberdrola da), handik sare orokorrera konektatzeko. Energia, lurpean sartutako kableen bitartez bideratuko

lukete Elgoibarko azpiestaziora, 4,79 kilometroko ibilbidean zehar.


Proiektuak, guztira, 10.762.915 euroko aurrekontua izango luke.

Eusko Jaurlaritzaren Garapen Ekonomiko eta Jasangarritasunerako Departamenduak abuztuaren 2an jarri zuen ikusgai Green Capital Development 135 SLU enpresak Karakateko parke eolikoa eraikitzeko aurkeztu duen hasierako ingurumen txostena.

"Uztargarria eta moderatua"

Bertan, enpresak zehazten du bere ikuspuntutik proiektuak zer nolako inpaktua eragingo lukeen ingurumenean eta inpaktu hori minimizatzeke zein neurri hartuko litzuzkeen. Enpresaren iritziz, proiektuak ingurumenean izango lukeen eragina "uztargarria eta moderatua" izango litzateke eta ondorioz, ez du ikusten arrazoirik proiektua geldiarazteko.

Ingurumen txostena argitaratu arte, Green Capitalek ezagutarazi gabe zituen proiektuaren gaineko hainbat informazio; esaterako, ingurumen txostenean argitu zuen nola pentsatzen dituzten garraiatzea zentral eolikoa



Jaungoikomendi. Argazkia: Xangarin (mendiak.eus)



Kalamua mendian Markina-Xemeini dagokion gunea ezarri dute eolikoak jartzeko gune optimo bezala. Argazkia: Ekhi Belar.

eraikitzeke pieza erraldoiak: Elosutik garraiatuko lituzkete, horretarako, mendi gainean zehar 5 metro zabal eta 8 kilometro pasatxo lituzkeen errepidea eraikiz, aerosorgailuak ezarriko lituzketen kokalekuraino. Horrekin batera, aurreproiektuan aipatzen ez zuen “dorre meteorologikoa” eraikitzeke asmoa ere azaltzen da ingurumen txostenean. Hirugarren dorre hori 101 metro garai izango litzateke eta txostenean diotenez, eraikitzeke, “gutxienez” 520 m²-ko plataforma eraiki behar-ko lukete. Bestalde, txostenak dorre eolikoak muntatzeko era-

biltzea aurreikusten duten espazioa ere zehaztu zuen: 3.000 m².

Egitasmoaren prozedurari dagokionez, berriz, Green Capitletik esan dute espedientea tramitatzen segitzen dutela eta zaila dela behin betiko proiektuaren gaineko data zehatzik ematea.

Beste kokagune bat

Zentral eoliko bat eraikitzeke egitasmoa aurkeztuta izan arren, Eusko Jaurlaritzaren LPSaren aurrerapenaren arabera, Soraluze-Bergara inguruan, eremu bakarra dago kontsideratuta aerosorgai-

luak jartzeko eremu optimo modura: Txurruka gaineko Koskorreta-Ozeta Irukurutzetatik Osintxu aldera jaisten den hegi handian dago kokatuta esparrua, Soraluze Atsedentxaboleta esparru ingurua modura ezaguna den gunea. 625 bat metroko esparrua.

Karakate-Irukurtzeta lerrokadura, berriz, gune baztertu modura azaltzen da LPSaren aurrerapenean, baina aldi berean, lerrokadura hori ez da osorik baztertzen.

Eibarren, bi

Bestalde, Soraluze ez ezik, berriztagarrien LPSak eolikotarako beste zazpi kokagune optimo bereizi ditu Debabarrenean, bigarren mailako gune optimoak, guztiak ere.

Horietako bi Eibarren edo Eibar inguruan daude: bata, Akondian (Arrikurutz) eta bestea, Markina-Xemeinekin muga egiten duen Kalamua mendian. Bien artean, kilometro eta erdiko luzera hartuko lukete.

Mendaro-Deba-Itziar, gehien

Itziar-Deba-Mendaro eremuan daude, berriz, gune optimo kopururik handienak identifikatuta, bost: Urkamendi-Arriolak (Itziar, Deba), Otaerre-Larraskanda (Deba, Mendaro, Azkoitia. Izarraitzen); Otaerre (Txoriskita)-Elordi-Urkullu (Mendaro, Deba. Izarraitzen) eta Andutz-Txobillar (Itziar, Deba). Guztira, lau kilometro pasa.

Mutrikun, sei gune lerratuta

Azkenik, Mutrikun beste lerrokada bat markatu dute gune optimo modura. Ez da lerrokada jarraia, baizik eta guztira, lau kilometro pasako luzera hartuko luketen sei gune daude markatuta; bat izan ezik gainerako guztiak Jaungoikomendi eremuan daude kokatuta.

Eragile politikoaren iritzia

ZER IRUDITZEN ZAIZUE DEBABARRENEAN PARKE EOLIKOAK JARTZEA?

Ordezkarari politikoek zeresana izango dute Energia Berriztagarri-en Lurralde Plan Sektorialaren tramitazioan eta, horregatik, gaur egun Debabarrenean ordezkaritza duten alderdi, plataforma edota eragileekin egon nahi izan dugu gaiaren gainean euren iritzia zein den jakiteko. PP alderdiaren kasuan, ostera, Ermuako PP-ren izenean erantzun diote geure galderari.



Krisi energetiko batean murgilduta gaude. Erregai fosiletan errotutako gure energia-sistemaren ondorioz pairatzen ari garen klima-aldaketa areagotzen ari da.

Arazo honi aurre egiteko, tresna nagusia trantsizio energetikoa da, hau da, erregai fosiletan errotutako sistema energetiko bate-

tik emisio gutxiko edo karbono-emisiorik gabeko batera aldatzea, iturri berriztagarrietan oinarrituta.

Denok bat gatoz energia berriztagarrien aldeko apustua egin behar dela, baina modu zuzen, kontrolatu eta antolatuan, horrek ez baitu esan nahi horren kostua hutsa denik. Energia eolikoa batzuentzat elektrizitatea sortzeko modurik garbiena, berriztagarria eta kutsadurarik gabekoa bada ere, ezin dugu ahaztu ingurumenean eta biodibertsitatean duen eragin ezkorra.

Horregatik guztiagatik, gure eskualdean parke eoliko bat jartzeko aukeraren aurrean, ezer baino lehen, azterketa zorrotz bat egin beharko genuke, irizpide teknikoak, ingurumenekoak, sozialak eta ekonomikoak kontuan hartuta.

Baina ez dezagun ahaztu planetaren etorkizuna gure esku dagoela, eta, beraz, has gaitezen kontsumo-ohiturak aldatzen: energia-kontsumoa murriztuz, kontsumo iraunkorragoak sustatuz eta ditugun baliabideak modu eraginkorrean erabiliz.

ehbildu

Garrantzitsua da parke eolikoaren eraginaz hitz egin aurretik larrialdi klimatikoaz eta energiaren krisiaz hitz egitea. Alde batetik, erregai fosilekiko dugun menpekotasuna dago, eta bestetik, honek larrialdi klimatikoan duen eragina. Beraz, ezinbestekoa da erabat lotuta dauden bi gaiak elkarrekin eta Euskal Herrian ere trantsizio ener-

getikoa lehentasunez hartzea. Horretarako, behar dugun energia kontsumoa zehaztuko duen eta hau lortzeko oinarriak jarriko dituen Energia Estrategia diseinatu behar da. Beraz, Lurralde planifikazioak eskutik behar du energia berriztagarrietan oinarritutako planifikazio energetiko bat. Energia berriztagarrien hedapen ordenatu baterako planifikazioa da behar duguna, eta hau da LPS berriak duen gabezia nagusia. Gure ustez, autosufizientzia ahalik eta eskalarik txikienetan bilatu behar da, eta hor lortu ezin dena goragoko eskaletan

bilatu, beti maila lokaleko autosufizientzia osatzeko helburuarekin. Eta betiere aintzat hartuz arrazoi ezberdinengatik salbuetsi eta baxestu beharreko eremuak. Trantsizio energetikoak interes publikoari erantzun behar dio, eta gure ustez, ezinbestez aipatutako baldintzei. Beraz, parke eolikoaren beharra eta kokapenaz hitz egin aurretik, ezinbestekoa da Euskal Herrian dugun Energia beharra aztertzea eta honi bide emateko herritarren batera prozesu sakonak egitea, herritarren oniritzia ezinbestekoa delako estrategia honetan.



LPS batek, izan orain arte indarrean dagoen eolikoak edo lantzen ari den berriztagarrienak, berriztagarri hori non ezin den garatu uzten du garbien; eta, garatzekotan, garatzeko balizko lekuak zehazten ditu. Planak aipatzen du balizko eremu horiek zehaztasun gehiagoz lantzen dituela eremu bakoitzera-ko proiektua egiten denean. Proiek-

tuak berak zehaztatuko ditu hai-zerrotak non jarriko diren eta proiektuak lurrari sortuko dizkion morrontzak. Indarrean dagoen Planaren barruan planteatzen diren parke batzuk bertan behera gertatzen ari direla ikusten ari gara, ingurumen edo arategiak eskatzen dituen baldintza guztiak betetzea ezinezkoa gertatzen zaielako edo garapena bideragarria ez delako. Energia berriztagarriak ezinbestekotzat jotzen baditugu eta trantsizio energetikoa egin behar bada, erabakiak hartu eta neurriak ezarri behar dira, ahalik inpaktu txi-

kiena sortuko duten berriztagarriak bultzatzeko. Ezin dugu berriztagarrien alde egon eta proiektuak zehaztasunez ezagutu gabe, alar- ma sortzen hasi edo aurka jarri. Gure industriak ezinbestekoa du aztarnarik gabeko energia ekoiztea. Eta gure ongizatea industrian oinarrituta dago. Horrek ezinbestean berriztagarriak jartzera eraman behar gaitu. Gainontzean, berriztagarria bada ere, kanpotik ekarri beharko dugu, kanpokoek ezartzen diguten prezioan. Burujabetza bada gure helburua, energian ere, gure energia ekoizten hasi behar dugu.



Azkenaldian bizi dugun energia- krisiak areagotu egin du tokiko energia berriztagarriekiko interesa, trantsizio energetikoa gauzatzeko premia agerian utzi baitu. Baina trantsizio hori egiteko modu asko daude. Trantsizioa jasagarria izateko, plangintza beharrezkoa da, eta horretarako LPS-a tresna baliagarria izango da. Aurrerapen Doku-

mentuan, zentral eolikoak egiteko eremu egokien artean, Irureko Haitzetik Andutz tontor aldera eta Urkamenditik Arriola bitarteko kokapenak ageri dira. Geoparkea, Biotopoa, Izarraitzeko babesgunea... Balio handiko ingurua dugu, eta eraikuntza hauek sortuko luketen atzera bueltarik gabeko txikizioak kezka sortzen du. Industrialdea bertan izanik, energia-iturri berriztagarriak ustiatzeko hau bezalako eremu antropizatuak lehenetsi beharko liratekeela uste dugu, lur gehiago artifizializatu ordez. Koka- penaren eztabaidaz harago, tran-

tsizio energetikoak aldaketa sako- nagoen eskutik etorri beharko luke. Emakumeen Eguneko aldarrietako bat zaintzak erdigunean kokatzea izan da. Energiak badu garrantzia zaintza horretan, eta negozio gisa kudeatzetik eskubide gisa kudeat- zera pasatu beharra dago, herritar- rak ahaldu eta energiaren jabetza berreskuratuz. Energiak her- ritarren benetako beharrei erantzun behar die, hazkundearen logika alde batera utzita. Energiaren erronkak aldaketa sozioekonomiko sakonak eskatzen ditu, benetan zaintza er- digunean jarri nahi bada.



Galdera batekin hasiko gara. Alda- keta klimatikoari aurre egiteko gizarte bezala, herritar bezala, zerbait ipintzeko prest al gaude? Erantzun bakarra teknologia eta natura suntsitzean oinarrituko al dugu? Debabarrenean Natura 2000 sareko naturgune babestuek eta SARE BERDEA osatzen duten eko- sistemak eta galtzeko arriskuan

eta egoera zaurgarrian dauden hainbat espezie dauzkagu. Bi ha- markada baino gehiago darama- tzagu lurraldea aktibo finantzario gisa erabiltzen. Hortik dator admi- nistrazioaren desarautzea eta esku- hartze falta. Azken 50 urteetan zientzialariek behin eta berriro azaldu digute etengabeko hazkun- dea ezinezkoa dela mugak dauzkan planeta batean. Argi eta garbi jakin behar dugu mendi guzti-guztiak parke eolikoz eta zelai guztiak eguzki-panelekin beteko bagenu ere, ezingo genukeela gaur egungo energia kontsumoa mantendu.

Askoz energia gutxiago kontsumi- tzen ez badugu, ordezkapen hau ez da iritsiko. Nolabaiteko arrazio- naltasun eta errealismoak gidatu beharko gintuzkeela uste dugu. Izan ere, hori da, eta besterik ez, berriztagarrien makroproiektuen aurkako mugimenduek eskatzen dutena: demokrazia eta subirano- tasun energetikoa. Hau da, zer energia mota, zenbat eta zertara- ko erabakitzeko gaitasuna. Bizitza eta ekonomia birkokatzea izan daiteke irtenbidea, tokiko energia eta materialekin tokiko beharrak ase ahal izatea.



Ezin da okerrago egin. Otarre eta Atxurigain bezalako mendieta-rako proiektuak planteatzeak -kontuan izanik Izarraitz mendigunean kokatuta daudela eta urak Kilimon ibaiaren akuiferora (Mendaro) drainatzen dituztela-, erabateko ezjakintasuna eta zentzugabekeria erakusten ditu. Proiektu horiek lurpeko eremua-

ri eragingo lioketen kutsadura ondo dokumentatuta dago. Elgoibar, Deba, Itziar, Mendaro eta Mutrikuko urak elikatzen diren akuiferoa babesteak beste interes batzuen gaintik egon beharko luke. Beste proiektu batzuek, hala nola Kalamuakoak eta Karakatekoak, amorrarazi egin ditu herri-tarrak, mendi horiek gordetzen dituzten ondare-balioak hondatzearen aurka daudelako. Karakateren kasuan, Elgoibarko eta Soraluzeko udalek ezezko irmoa adierazi dute, baina proiektuak aurrera jarraitzen du, bi udalek

onartu dituzten Babes Planak gorabehera. Eusko Jaurlaritzak ez ditu berriztagarriak bultzatu, 40 urtean gasaren eta *fracking*-aren aldeko apustua egiten jardun delako soilik, eta orain gasaren eta petrolioaren lehengo oligopolio energetikoaren eskutik doa, energia berriztagarrien oligopolio berri gisa posizionatzeko, proiektuak esleitzuz, ingurumenean edo gizartearen suminean duten eragina gorabehera, eta udalen aurrean eta herritarren interesen aurka inposatuz. Ez, gauzak ez dira horrela egin behar.



Gipuzkoak kanpoarekiko mende-kotasun energetiko handia du (%90) eta energia berriztagarrien presentzia ez da % 8ra ere iristen. Datu horiek kontuan hartu behar ditugu erabakiak hartzerakoan, mende-kotasun energetiko handia gure eta eskualdeko enpresen kostuen igoeraren eta lehiakortasun-galerraren arrazoi bat baita, eta baita

gure herritarren erosteko ahalmena galtzearen arrazoi bat ere. Lurraldeko udalerrri eta eskualde guztien trantsizio energetikoa bizkortzeko garaia da, udal askotan komunitate energetikoekin egiten ari garen bezala, baina ez da nahikoa kanpoarekiko daukagun mende-kotasuna gainditzeko. Energia berriztagarrien behin betiko bultzada eraginkorren lan egin behar dugu, eta hor energia eolikoak eta parke eolikoek aliatu izan behar dute gure lurraldean. PSEk trantsizio energetiko berde baten aldeko apustu egiten du, baina justua eta

soziala izan behar da, eta garatzen diren berriztagarrien proiektu guztiek osagai sozial hori izan dezaten lan egiten dugu. PSEk garrantzitsutzat jotzen du proiektu eolikoak gauzatzeko hauek ahalik eta zorroztasun tekniko handienarekin egitea, eta, hala, ingurumen-balioei lehentasuna ematea, proiektu guztien ingurumen-inpaktuak modu metatuan eta sinergikoan aztertuz. Horretarako, oso garrantzitsua da Eusko Jaurlaritzak, energia berriztagarrien LAParen onarpena azkartzea. Plan horrek denbora gehiegi darama izapidetzen.



Kultura-, natura- eta paisaia-interes handiko eremu baten inguruan hitz egiten ari gara. Baina, aldi berean, energia merkeago eta garbiagoak nahi ditugu. Dikotomia honen aurrean, Energia Berriztagarrien Lurralde Plan Sektoriala onartzea izango litzateke logikoa, eta hori Eusko Jaurlaritzari dagokio | Ermuko PP

"Egin behar den lehenengo gauza energia kontsumoa jaistera da"

IÑIGO ANSOLA ENERGIAREN EUSKAL ERAKUNDEKO ZUZENDARIA

Iñigo Ansola Kareaga (Markina-Xemein, 1974) Euskal Energia Erakundeko (EEE) zuzendaria da. Azpimarratu du energia berriztagarriak lortzeko mota guztietako proiektuak beharko direla eta egin beharreko lehen gauza energia kontsumoa jaistera dela.

Zein da egungo egoera?

Dependentzia handia dugu. Kanpotik ekartzen dugu kontsumitzen dugun energiaren %90 eta %10 guk sortzen dugu. Hemen sortutako horretatik %62 biomasa da, %21,7 bioerregaia, %4,9 eolikoa, %5,4 hidroelektrikoa eta %5,8 eguzki energia (2020 datuak dira).

Zer lortu nahi da?

2030erako kontsumitzen dugun energiaren %21 izatea berriztagarria, izan guk produzitutakoa (%16) zein kanpotik ekarritakoa (%5). Gauregun, kontsumitzen dugunaren ia %17 iturri berriztagarrietatik sortutako energia da, inportatzen ere ari garelako berriztagarrietatik sortutako energia. %21 lortzeko, gure plan estrategikoan azaltzen da, adibidez, 783 MW jarriko dugula sektore eolikoaren bitartez; gaur egun, 153 MW daude martxan. Euskadin oso energia kontsumitzaile handiak gara. Energia asko kontsumitzen

dugunez, kontsumoaren mix hori berriztagarrien aldera ehuneko bakarra aldatzeko ere, sekulako ahalegina egin behar dugu. Ez da gauza bera Extremadurako mix energetikoa aldatzea edo Euskadikoa. Gero dator hurrengo eztabaida: energia berriztagarri asko sortu behar dugu. Baina, zelan eta non?

Hori da, zelan eta non?

Ondo dago plaka fotovoltaikoekin auto-kontsumorako proiektuak sartzeara eta horretarako dirulaguntza asko banatzen ditugu; baina horrek ez du asetzen dugun premia guztia. Plakak beren teilatuetan jarrita ere, portzentaje bat lortuko dute industrietan, baina ez behar duten beste. Tamaina guztietako proiektuak behar ditugu: txikiak, ertainak, bai eta handiak ere, energia asko sortuko dutenak.

Plaka fotovoltaikoek lur eremu handiak behar dituzte. Eta eolikoak haizeak jotzen duen lekuan jarri

behar dira; gure erkidegoan, mendi tontorretan, mendi gailurretan, dago haizea. Proiektu hauek inbertsio ekonomiko handia egitea eskatzen dute, eta gutxieneko bat zaindu behar da, haizeari dagokionez. Horregatik dago interesa, baita ere, itsasoan jartzeko, han mendietan baino baliabide egokiagoak daudelako argindarra sortzeko. Baina gure itsasoak erronka zailago batzuk planteatzen ditu: plataforma kontinental sakonak ditu eta azpiegiturak flotanteak izan behar dira, baina gure itsasoak, neguan, badaki olatu ikaragarriak sortzen; gainera itsasokoa ur gazia da, eta horrek konponenteak ugertu egiten ditu. Baina hor dago baliabide oso garrantzitsua eta enpresa pribatuak sekulako apustua egiten ari dira.

Energia Berriztagarrien LPSaren aurrerapenean, zortzi gune optimo markatu dira Debabarrenean eolikoetarako. Zer lortu nahi da horrekin?

Legeak zein gunearen ezaugarriak kontuan hartuta, ikusten dira zeintzuk diren gunerik onenak parke eolikoak jartzeko. Beste kontu bat da gero enpresek gune horiek interesgarriak ikusten dituzten edo ez. Aldagai desberdinak aztertu beharko dituzte. Adibidez, izan

"783 MW jarriko dugu sektore eolikoaren bitartez, gaur egun 153 MW daude martxan"



Iñigo Ansola Kareaga. Argazkia: EEE.

daiteke gune bat oso egokia haize aldetik, baina konexioa 25 kilometrorra izatea eta horrek ez egitea hain aproposa izatea. Normala den moduan, edozein parke negozio plan bat izan behar du atzetik, burutzen diren inbertsioak oso handiak direlako eta proiektu horiei etekina atera behar zaielako. Beraz, gerta daiteke LPSan egokitzat jotzen den eremu batera inor ez joatea proiektu batekin, ez delako interesgarri ikusten.

Alemanian, adibidez, autobide batzuk plaka fotovoltaikoz estalita daude. Hau da, gune degradatuak erabildituzte energia produzitzeko. Halakoak hemen ezin dira egin?

Denak beharko ditugu. Argi eta garbi. Aztertzen ari dira, adibidez, harrobietan eguzki energia aprobetxa daitekeen, bide

bazterretako zortasun -bideak erabiltzea, urtegietan eguzki-plaka flotanteak jartzea... Ideia asko daude. Dena da aztertzea proiektuek zenbat argindar sor dezaketen, inbertsioak nolabaiteko itzulera izango duen ikusteko. Guztiek dute inpaktua, eta aztertu egin behar dira.

Hemen eta han, kontrako jarrera handiak ikusten ari gara zenbait proiektukiko. Zelan baloratzen duzue hori?

"Herritarrok proiektu horiek geureganatu eta geure sentitu behar ditugu"

Ulegarria da. Argi dago parke eolikoek zein fotovoltaikoek ingurumenarekiko inpaktua dutela. Egin behar dena da parke horiek indarrean dagoen legedia, ingurumen baldintzak eta beste era batekoak betetzen dituztela bermatu. Bermatzen baldin bada hori, zalantzarik gabe, aurrera, energia ikuspegitik oso premiazkoak ditugulako. Erroka bat ere badugu: herritarrok proiektu horiek geureganatu egin behar ditugu eta geure sentitu. Gaurko teknologiak laguntzen du geureganatzeko modu desberdinak sortzen: sortzen den argindarrarekiko onuradunak izanda edo parke horretan geure jabetasuna izateko aukera izanda.

Ez da aztertu energia kontsumoa jaitsi beharra?

Egin behar den lehenengo gauza da hori: energia kontsumoa txikitzea. Zenbat eta energia gutxiago kontsumitu, orduan eta errazagoa izango da iturri berriztagarrietatik lortzea. Energia mailan politikarik eraginkorrena izango da eraginkortasun energetikoa. Produktu bat lortu energia gutxiago erabiltzen edo gure etxea berotu energia gutxiago erabiltzen. Horretara diru asko dugu zuzenduta, geroz eta energia gutxiago kontsumi dezagun etxeetan, industrian, zerbitzuetan, eta zer esanik ez, batetik bestera mugitzeko.

"Argi dugu herritarren gehiengoak ez duela proiektu hau nahi"

KARAKATE BIZIRIK PLATAFORMA

Orain dela 20 urte entzun ziren estreinakoz Karakaten parke eolikoa eraikitzeko aukerak aztertzen ari zirela, eta orduan sortu ziren Elgoibarko eta Soroluzeko Karakate Bizirik plataformak, Karakate babesteko helburuarekin. 2022ko urte hasieran aktibatu zituzten berriro bi taldeak, Green Capital Energy enpresak Karakaten parke eolikoa eraikitzeko proiektua aurkeztu zuenean. Herritarrak informatu eta hainbat ekintza egin dituzte, Karakate bizirik nahi dutelako.

Karakate gainean egin nahi duten parke eolikoaren kontra bildu zarete. Zeintzuk dira proiektuaren kontra egiteko ikusi dituzuen arrazoi nagusiak?

Karakate ingurua bere osotasunean babestea da gure helburua. Izan ere, bizi garen zonalde industrializatu honetan, mendiak dira gure arnagune bakarrak. Karakate mendi berezia da gainera inguruko herritarrontzat, dugun lotura afektiboaz gain inguruak dituen balio askotari-koengatik: geologia, ekologia, arkeologia, paisaia zein aisiaren ikuspegitik babestu beharreko eremua dela uste dugu.

Duela 20 urte egon zen Karakaten parke eolikoa egiteko beste saiakera bat, eta orduan atzera bota zuten. Zelan ikusten duzue bigarren saiakera hau?

Asko arduratu gaitu proiektua berrartzeak. 1998an izan zen lehen saiakera, eta herritarrok gelditzea lortu genuen orduan.

Orain, eskualdeko mendietan hainbat proiektu aurrera eramateko arriskua dago. Karakatez gain, Kalamua, Akondia, Txurruka gaineko Koskorreta-Ozeta, Andutz-Txobillar, Otarre-Larraskanda, Juangoikomendi, Urkamendi-Arriola ere kokagune egokitzat aurreikusten dira. Beraz, aukera hau baliatu nahi dugu, eskualdeko gainontzeko herrietan gaiarekin kezka duten biztanleak gugana gerturatu daitezten gonbitea egiteko.

Zein puntutan ikusten duzue une honetan Green Capital en-

"1998an izan zen lehen saiakera, eta herritarrok gelditzea lortu genuen orduan"

presak Karakaten jarri nahi duen parke eolikoaren proiektua?

Proiektu definitiboa egon ez arren, gure mendien kontrako faktore asko ditugu, besteak beste, Europako, Madrilgo eta Gasteizko Gobernuak mega proiektuak garatzeko onartzen ari diren erraztasunengatik. Urte askoan administrazioak ezer egin gabe egon dira eta orain dena korrika egiteko beharra dute, Europak ezarritako berriztagarrien ekoizpen kopuruetara iristeko, eta inolako egiturazko plangintzarik gabe dabilta. Ondorioz, enpresa pribatuak dira proiektuak txanpinoi moduan planteatzen ari direnak. Karakateko asmoari dagokionez, Proiektua eta Ingurumen-Inpaktuaren azterketa publikoa egiteko zain gaude, eta hauteskunderen ondoren publiko egingo duten susmoa dugu.

Karakate-Hirukurutzea gaina arkeologikoki babestutako ingurunea da, baina proiektu hau



Karakate Bizirik plataformako hainbat kide.

atzera botatzeko adinako babesik ba al dauka?

Green Capital enpresak Hastapeneko Ingurumen inaktuaren txostena aurkeztu zuen abuztuan. Bi herrietako plataformek, mendi taldeen laguntzarekin, eta baita Bergara, Soralue eta Elgoibarko udalek ere ekarpenak egin genizkion txosten horri. Guretzak badu babes nahikoa, aurreko saiakeran ere Babes Arkeologikoagatik bota zutelako proiektua atzera, baina argi dugu, nahi badute egingo dutela, interes ekonomiko handiak daudelako tartean eta Administrazioa alfonbra gorria jartzen ari delako Energiaren Lobbyei. Aurre egiten aurkituko gaituzte.

Elgoibarko eta Soraluezko udalak proiektuaren kontra posizioan dira. Horrek lagundu dezake proiektua atzera botatzeko?

Proiektuaren aurkako eta Karakate babestearen aldeko posi-

ziamendu oro da positiboa, zer esanik ez herritarren ordez-kari diren erakundeek aho batez egiten badute. Baina badakigu azken erabakia ez dela udalena, hau da, proiektua geratzea ez dagoela erabat udalen esku. Hala ere, gutxienez herrien posizioa argi lagatzeko balio du, hemen kontratasun eta kezka bat dagoela erakusteko. Aldi berean, antolatu ditugun ekimenetan parte hartu izana eskertzea nahiko genieke herritarrei (Mendi Martxa, jende katea, hitzaldiak, 2.026 sinadura Elgoibarren...). Argi dugu, herritarren gehiengoak ez duela proiektu hau nahi.

Karakaten ez dituzue eolikoak nahi, baina ez zarete energia eolikoaren kontra agertu. Eolikoak zein baldintzatan onartuko zenituzkete?

Eolikoaren ezarpenak plangintza bati jarraitu beharko lioke, lurraldearen behar eta aukeren analisi arrazional batetatik abia-

"Megaproiektuak baina, proiektu herrikoiagoak bultzatu behar dira"

tuta, eta ez inprobisazioaren emaitza izan. Azken honek eraman du txanpinoiak bezala zentralak bata bestearen atzetik proiektatzera. Plan sektorial horrek aspaldi behar zuen osatua, baina momentuz zirriborroa baino ez da egin publiko. Behin betiko plana osatu arte, herritarren parte-hartze ezinbestekoarekin, planteaturiko proiektuei baime-nik ez litzaiekeela eman beharko iruditzen zaigu, adibidez moratoria bat ezarritik. Eolikoak ezarritako baldintzetan ez gara adituak, baina iruditzen zaigu zenbait irizpide batzuk kontuan hartu beharko liritekeela: inguru antropizatuei lehentasuna eman (harrobiak, industrialdeak...), nekazaritza eta abeltzantzarako balio altuko eremuak eta naturaguneak babestu... Kapitalaren akumulaziorako diren megaproiektuak beharrean eskala txikiagoko proiektu herrikoiagoak bultzatu behar direla uste dugu.

Egungo kontsumo ohitura eta kopuruari begira, zein alternatiba proposatzen duzue?

Gure taldeak ez ziren sortu alternatibak plazaratzeko, Karakate babesteko baizik. Hala ere, herritarrak informatzeko hitzaldiak antolatzen gabiltza, praktikan dauden eredu eta alternatiba ezberdinen berri emanez. Izan ere, Lobbyen interesen gainetik alternatibak egon badaude.

"Trantsizio ekosozialak energia berriztagarrien inplementazio azkarra behar du"

ALAITZ AJURIAGERRA JAUZI EKOSOZIALA

Urte hasieran Jauzi Ekosoziala dinamika aurkeztu zuten, iaz egin ziren Ekotopaketetatik abiatutako ekimena. Alaitz Ajuriagerra eibartarra da dinamika horretako kideetako bat.

Nolako egitasmoa izan zen Ekotopaketak? Zergatik eman dizue pauso hau?

Ekotopaketak krisi ekosoziala eztabaidatzeko eta gaia jorrazteko helburuarekin antolatu genituen, askok mugimendu ekologista artikulatzeko eta indartzeko beharra ikusten dugulako. Asko dira tokian-tokian gai ezberdinen bueltan antolatuta dauden taldeak, izan basogintza eredia lantzen dutenak, elikadura burujabetza lantzen dituzten kontsumo talde eta nekazariak, erraustegiaren aurkako taldeak, AHTaren aurkakoak... Baina ikuspegi orokor batetik begiratu duen mugimenduaren falta igartzen dugu, ekologismoa modu transbertsalean landuko duena eta gai sozialekin lotuko duena. Izan ere, gure egunerokoan ekologismoak arlo askotan bustitzen gaitu, nahiz eta kontziente ez izan. Borroka ekologista klasikotik haratago joan nahi dugu, eta krisi ekosoziala agenda politikoaren

erdigunean jarri. Helburu nagusia jendartera heltzea izan beharko litzateke, gai ekologikoak bizitzen ari garen krisi honetan eztabaidagai egon daitezen.

Zeintzuk dira zuen helburu nagusiak?

Esan bezala, ekologia erdigunera ekartzea eta gai sozialekin uztartzea da helburu nagusia. Ekologismoa eta krisi ekosoziala agenda sozial eta politikoaren erdigunera eramatea, alegia. Horretarako gure artean saretzea, beste gai batzuetan politizatuta eta aktibatuta dagoen jendea ekologismora hurbiltzea eta jende ez politizatua ere aktibatzea izango da erronka handiena.

Nolako trantsizio energetikoa egitea proposatzen duzue?

Trantsizio energetikoa beharrezko trantsizio ekosoziala proposatzen dugu. Horrek dituen zailtasun guz-

tiak kontuan hartuta, ikuspegi global eta orokor batetik begiratu, begirada sistemikorekin. Trantsizio ekosozialak energia berriztagarrien inplementazio azkarra behar du, baina ez edozein modutan. Irizpide eta baldintza minimo batzuk ezinbestekoak dira: planifikatua izan behar du, parte hartzailea eta demokratikoa. Makroproiektu berriztagarriak jartzearekin bakarrik ez dugu arazoa konponduko. Egun trantsizio energetikoa korporazio handiek zuzentzen dute, helburu nagusi bakarra etekin ekonomikoa ateratzea dute eta ez dago modu ordenatu eta planifikatuan planteatuta. Kontsumo energetikoaren murrizketa handi batekin batera planifikatu beharko litzake horien instalazioa, eskala ezberdinetan, parte-hartze publikoarekin, inpaktuak kuantifikatuta edo aztertuta eta erreparazio eta konpentsazioak kontuan hartuta, eta horiek sor ditzaketen etekin ekonomiko eta sozialak kalteuak izango direnekin elkarbanatu. Sentsazio orokorra da, erregai fosilak ordezkatu baino mix energetikora gehitzeko planteatu direla modu inposatu batean. Bestalde, klima larrialdiaren kausa eta

"Krisialditik modu duinean ateratzeko, nola nahi dugun bizi birpentsatu behar dugu"



Jauzi Ekosoziala ekimenaren bozeramaileetako bat da Ajuriagerra.

ondorioez, biodibertsitatearen galeraz, gure eredu sozioekonomikoaren jasangarritasunaz, gure mugikortasunaz, gure kontsumo ereduaz, gure pribilegioez gutxi egiten da berba, eta klabeak dira trantsizio justu baterantz joateko. Baliabide mugatuak dituen planeta batean hazkundean oinarritutako sistema ekonomikoa ezartzea izan da hona ekarri gaituen arazoa. Energia zertarako eta norentzako galderari erantzun behar diogu alde batetik, eta gero, non eta nork sortuko duen. Denon bizitza duinak eta oinarrizko beharrak asebetetzeko, beharrezkoa da energia kuantifikatzea, eta horretarako beharrezkoak izango ditugun azpiegiturak zeintzuk izango diren kalkulatzeko, ahalik eta inpaktu txikiena dutenak bilatzea, etab

Prest gaude trantsizio horretarako?

Ez gaude prest, baina ahalegina egin behar dugu, bestela inposatu egingo zaigu. Neurri batean aldaketa baten aurrean sartuta gaude, pobretze prozesu batean murgilduta gaude, eta bizitzaren garestitzearekin batera, gure kontsumo eredu ere aldatzen hasiak gara desazkunde baterantz. Beste eredu baterako trantsizioa bideratzeko, ezinbestekoa da gizartean adostasunak bilatzea, gure burua berrasmatezea eta gizartearen erdigunean beste helburu batzuk jartzea. Krisialditik modu duinean ateratzeko, nola nahi dugun bizi birpentsatu behar dugu, guztiontzat beharrezkoak diren ase beharrak zeintzuk diren, ondasunak nola banatzen diren, lanak, zaintza eta denbora,

gizartean erabakiak nork eta nola hartzen dituzten...

Zer iruditzen zaizue LPSak gure mendietan parke eolikoak jartzeko egindako proposamena?

Ez ditugu LPSak aztertu, ez gara adituak horretan eta ez dugu gure eginkizun bezala hartzen. Baina iritzi bat ematearren, eta oker ez banago, LPSa ez dago bukatuta eta moldaketak izango ditu. Ziur nago planteatzen diren leku askotan ezingo direla horrelako proiektuak aurrera eraman, ezin baita soilik ekoizpena kontuan hartu, naturababesgunez gain korridore ekologikoak eta bestelako plan sektorialak ere integratu behar direlako. Bestelako eredu sozioekonomiko bat aldarrikatu nahi badugu, kontuan hartu behar ditugu zein lur erabiliko diren elikadurarako eta abeltzaintzarako, zein basogintzarako, zein lur babestu behar diren interes handiko naturguneak direlako, zein industriarako... eta agian kontsumo energetikoa murrizteko plan sektoriala ere aldarrikatu beharko dugu. Plangintza integrala aldarrikatzearen aldekoa naiz, modu ordenatuan, nahi eta behar dugun eraldaketa planteatzeko, trantsizio ekosozial baten bidean.

Debabarreneko herritarren iritzia

GAIA GERTUTIK EZAGUTZEN DUTEN ESKUALDEKO HERRITARREN BERBAK



ALAIN ULAZIA

ENERGIA BERRIZTAGARRIEN
GRADUKO IRAKASLEA EHU-N

Irudikatu 40 elefanteko talde bat Usain Bolten abiadan korrika. Kuadrilla horrek duen potentzia xurgatzeko kapaz da gure super-

kontsumoa mutur parean ikustarazten digun haizerrota erraldoi bat. Nola ikusten duzu jendez hustutako Burgos, Nafarroa eta Aragoiko mendialdeak erraldoi hauekin josi eta gero honantz argindar kable potolo bat botatzea? Edo eskola aurkezpen batean ume batek esan zidana: "Ba! Zetako errota horrek, Espaini aldian zentral nuklear batzuk ipini eta lixto!". Aurrezpen energetiko nabarmena (adb. %50 2050rako) eta erabateko dekarbonizazioa premisatzat, dauden parkeak aprobeztatuta haizerrota modernoagoak ipintzeko, garraioa kolektibizatuta,

fotoboltaika eta eolika txiki-ertain komunitarioa erruz bultzatuta udalerrri mailan, eta mendi-goietan ura metatuko duten deposituak erabilia bateriatzat, erraldoi haue-tako oso gutxi beharko dira.

"Eskolan ume batek esan zidana: Ba! Zetako errota horrek, Espaini aldian zentral nuklear bat ipini eta lixto!"



JUANKAR ANDRES

HEGAZTIZALEA ETA BLOGEROA

Trantsizio energetikoa premiazkoa da klima-larrialdia dela-eta, eta bat etorri behar da trantsizio ekologikoarekin. Esparru horretan, energia berriagarriak oso garrantzitsuak izango dira epe motzean eta ertainean. Trantsizioa

eredugarria izan behar da, bai denboran bai forman, eta hura jasagarria dela bermatzeko, erabakigarria da "non" eta "noiz" aldaeren ganean hausnarketa egitea. Eolikoen garapenak errespetatu behar ditu ondare naturala eta bioaniztasuna, balio ekologiko handia duten espazioetatik kanpo geratu behar dira, eta jada degradatuta eta antropizatuta dauden inguruetan kokatu. Izan ere, parke eolikoek eragin negatiboak dituzte hegaztiengan, nabarmentzekoak: hegaztiak hiltzen dira haiek jota, hegaztien habitatak suntsitzen eta aldatzen dira, eta barrera-efektuak eta desplazamenduak sortzen dituzte, besteak beste.

Seo/BirdLifen azken txostenaren arabera, 6 eta 18 hegazti miloi inguru hiltzen dira urtero parke eolikoetan. Nik neuk ikusi dut Oiz mendian eoliko baten pala sai bati kolpea eman, eta hegoa apurtzen. Topatu ditut hilda miru gorriak, arrano sugezaleak eta saguzarrak, guzti-guztiak espezie babestuak direnak.

"Nik neuk ikusi dut Oiz mendian eoliko baten pala sai bati kolpea eman, eta hegoa apurtzen"



DANEL DE PRADO
ENERGIA BERRIZTAGARRIEN
INGENIARIA

Debabarrean energia berriztagarrien kuota areagotu beharra agerikoa da; hidraulikoak eta olatu-energiak osatzen dute (autokontsumoaz gain) 2,5 MWko potentzia instalatuko sorkuntza ahalmena, energia-menpekotasuna handia delarik. Gaur egun, aerosorgailu bakar batek potentzia hau erraz hiru-

"EAEn dugun energia defizitari aurre egiteko beste formula batzuk bilatu behar ditugu"

koiztu lezake. Hala ere, paisaian duen eraginaz gain, parke eoliko baten azpiegiturak (sare elektrikoak, pista zabalak...) naturan duen eraginak munta handia du. Lautada eta mendi baxuen erliebean edo malkartsua den Debabarrenean eragin hau zeharo desberdina da. Gainera, betiko suntsitu litezke aisigune diren zenbait eremu (Kalamua eta Karakate, besteak beste). Beraz, eskualdean eta, orokorrean, EAEn dugun energia defizitari aurre egiteko beste formula batzuk bilatu behar ditugu, arreta berezia eskainita eragin-kortasunari.



MIRIAN ARRIZABALAGA
BIOLUR

Mendietan parke eolikoak jartzeko asmoak entzutean, haiek jarri nahi diren lekura eramateko eta gero energia garraiatzeko egin behar diren apurketak etortzen zaizkit lehenik burura; fabrikaziorako beharrak batu beharko genituzke aurretik. Bigarren kolpean elikadurarekin egiten dut konparaketa, bi kasuetan kanpo dependentsia oso

"Etengabeko aldaketan bizi gara, baina norantz eta nola aldatu nahi dugu?"

handia dugu eta kontsumoan eta xahuketan, munduko batez beste-koekin alderatuta, gainetik gabiltza. Koktelak osagai gehiago ditu, baina datu batekin osatuko dut: azken bi hamarkadetan aurreko mende guztietan baino lur gehiago artifizializatu da eta bailararen industrializazio maila dugu horren adibide. Instalazioak egitekotan, lehenik eremu horietatik hasi beharko genuke. Elikatu ala konektatuta bizi? Lurra, ura, haizea eta eguzkia, jana eta energia; bi behar eta eskubide, jada gizartearen zati batek ase ezin dituenak. Etengabeko aldaketan bizi gara, baina norantz eta nola aldatu nahi dugu?



DIEGO MENDOZA
DEBANATURA

Debabarreko energia berriztagarrien LPSaren aurrerapena dela eta, parke eolikoaren kopuru harrigarri batek mehatxatzen dituen gure mendien amaiera hori gure munduaren amaiera izango da. Ez dut exageratzen oso gai garrantzitsua dela esaten badut, beti gure askatasun, ezinegon eta ongizate amaigabearen arnas izan diren

"Horrela harrikatu nahi dute betiko gure mendietako paisaia"

mendi horien gainean ezartzen den mehatxu horrek ezinezkoa egiten baitu oraindik ere hala izaten jarraitzea. Orain, betiko botere horiek, atzean izen berberak dituztenak, interes berberak dituztenak, oparotasun sakrosantuenaren izenean eta baliabideen krisi-egoera bati erantzungo dion trantsizio energetikoaren bandera faltsua goratuz, aurrekoak bezain kaltegarria den industria berri batekin aurkezten dira, energia berdeak deitzen dituztenekin, baina ez direnekin. Horrela harrikatu nahi dute betiko gure mendietako paisaia, benetan geratzen zaigun gauza bakarra.



ISA PRIETO
GEOGRAFOA

Onartu behar dut ez dudala proiektua bere osotasunean ezagutzen, ezta xehetasun teknikoak ere. Nire printzipioetan oinarrituta, ezarri ditzakegun era guztietako energia berriztagarrien alde nago, gure energia-kontsumoaren onorioak murrizte aldera. Era berean, uste dut formula jasagarrien esparruan ezin direla aplikatu irtenbide-eredu berdinak beti, eta leku baterako egokia dena bali-

"Ezarri ditzakegun era guztietako energia berriztagarrien alde nago"

teke aproposa ez izatea beste leku baterako. Energia berriztagarrien kontsumo kooperatiba bateko kontsumitzailea naizen heinean, badakit ere argindarraren fakturaren prezioa gutxitzeko formularik onena dela baliabideak optimizatzea, bai ekonomiari bai ingurumenari erreparatuta. Izan ere, energiaren larregizko prezioaren inguruan bolo-bolo dabilen eztabaidaren aurrean, galdera bat datorkit burura: gutxiago kontsumitu nahi dugu, ala bakarrik gutxiago ordaindu?



OIER ETXEBARRIA
GOIENER

Etorkizunean zein gizarte eta kontsumo eredu izango ditugun hausnartu beharra daukagu. Zenbat energia beharko dugun eta nola sortu nahi dugun ere erabaki behar dugu. Gaur egun kontsumitzen dugun guztia berriztagarriekin sortu ahal izango dugula pentsatzea ez da errealista. Lurralde, material eta denbora falta daukagu eta beraz, energia beharrak asko gutxitu ezean, kaosa ziurtatuta dago.

"Zenbat energia beharko dugun eta nola sortu nahi dugun erabaki behar dugu"

Goienerren, bazkide boluntario eta langileek osatutako lantalde baten hausnarketa egiten ari gara eta energia berriztagarrien proiektuek sabai ekologikoa eta lurzoru etikoa errespetatzeko oinarriak zehazten ari gara. Goienerretik baldintza hauek proposatu dira: parte-hartze handia eta kalitatezkoa eskatzea, ezaugarri buruzko erabaki-ahalmen handia bermatzea herritarrei, kaltetutako herritarren onartzea, eragindako herritarrei onura ekonomikoak ematea eta ingurumen inpaktua aztertzea.



IOSU AIZPURU
ENERGIAREN ARLOKO
KOORDINATZAILEA MU-N

Energia berriztagarrien alde egin behar dugula ez dago dudarik. Hala ere, energia berriztagarriak instalatzerakoan gizartean, bizigunean eta naturan duen inpaktua baloratu behar da. Gure gizarteak biziko dituen erronka energetikoak berriztagarrien, autokontsumoaren eta efizientzia energetikoa handitzearen batura batekin lortu behar ditugu. Gure bizigunea den Debabarrenean

"Haize gune egokiena izan arren agian ezin da parke eoliko bat egin"

autokontsumoa sustatu eta energia berriztagarri eolikoa sustatzeko ikerketa eta informazio gehiago behar dugu. Erabiltzaile gisa, proiektu desberdinen lokalizazio, diseinu eta kokapenaren erabakiekiko informazio eskasa nabaritzen dugu, eta horrek mesfidantza sortzen du. Bukatzeko, ezin dugu ahaztu naturan izan dezakeen eragina. Hai-ze gune egokiena izan arren, agian, ezin da parke eoliko bat egin. Parke eolikoak bai, baina ez nolana.

Lehen mailako izenak atzo udaletxean aurkeztu zuten Itzulia Basque Country-ren 62. edizioan

Behinbetiko dortsalen esperoan, orain arte kaleratutako izen ofizio-soen artean goi mailako txirrindularien parte-hartzea aurreikus daiteke apirilaren 3tik 8ra arte jokatu den aurtengo Itzulian. Berau amaituta, hurrengo egunean (9an) Challengea jokatu da lehenengo aldiz, zaletu edo afizionatuen parte-hartzearekin. Lasterketan izango dira, Jonas Vingegaard Tourreko garailea eta Daniel Felipe Martinez azken edizioako irabazlearekin batera, honakoak bezalako izenak: Ineoseko Egan Bernal, Borako Buchman eta Higuaita, Cofidiseko Ion Izagirre, EF Educationeko Carapaz, Chaves eta Uran, Groupama-FDJ-eko Gaudu, Intermarchéko Rui Costa, Jayco-Alulako Simon Yates, Movistar-eko Mas eta Almeida, Jumboko Kruijswijk eta UAE-ko Adam Yates eta Ayuso, Bahraineko Mikel Landa eta Pello Bilbao ahaztu barik. Jarraian dituzue etapetako ezaugarriak.

Apirilak 3 (astelehena)

Gasteiz / Labastida (165,4 km)

Itzulia 2023ko lehen etapan Opa-kua mendatea igoko dute. Puntu horretatik aurrera, errepide estuak eta oso bihurgunetsuak hartuko dituzte; ondoren, protagonista airea izan daiteke. Etapa egokia esprintean amaitzeko. Mendate bakarra.

Apirilak 4 (martitzena)

Viana / Leizxa (193,8 km)

Etaparik luzeena da. Lehen zatia, Leizxatik igaro artekoa, ihesaldia egiteko aproposa da. Bigarren zatia zirkuitua da, eta liderrak aurrean kokatu beharko dira. Errepideak bihurgunetsuetan klimatologia erabakigarria izan daiteke, jaitziera luzeak daudelako. Bost mendate.



Apirilak 5 (eguztena)

Errenteria / Amasa-Villabona (153,9 km)

Ziuraski, Gipuzkoako kostaldeko zati handia zeharkatu duen etapa honek irteera oso azkarra izango du. Amasa-Villabonatik igaro ostean, zirkuitu gogor bat hasiko da; errepide estuak izateaz gain, gora eta behera ibiliko dira etengabe. Ondorioz, tropelean tentsio handia egongo da, liderrak buruan kokatzeko. Amaitzeko, azken kilometro oso lehergarri eta gogor bati ekingo diote, Hikara iritsi arte. Bost mendate.

Apirilak 6 (eguen)

Santurtzi / Santurtzi (175,7 km)

Enkarterrietako ohiko etapa, ihesaldientzako egokiak diren igoera eta jaitziera askorekin. Azken partean, La Asturiana mendatea igo eta Zugaztietara jaitziko dira eta, aurreko urteetan bezala, azken zati hori erabakigarria izan daiteke.

Apirilak 7 (barixakua)

Amorebieta / Amorebieta (165,9 km)

Etapa zail honetan zuzendariek

peoiak mugitzeko aukera izango dute. Paresira arte mendate garrantzitsurik egongo ez bada ere, ibilbidea egokia izango da amaierara begira estrategiak probatzeko. Azken kilometroetan zirkuitu batean sartuko dira, eta aurrean egotea oso garrantzitsua izango da sailkapen nagusiari begirako aukerei eusteko. Lau mendate.

Apirilak 8 (zapatua)

Eibar / Eibar (137,8 km)

Itzuliako etapa nagusia, hasiera-hasieratik selektiboa eta oso zorrotza izango dena. Eguneko protagonistak sailkapen nagusiko gizonak izango dira. Oso garrantzitsua izango da talde ona izatea etapa kontrolatzeko, aurreko edizioetan ikusi dugun bezala. Zazpi mendate.

Apirilak 9 (domeka)

Itzulia Basque Challenge

World Tour Ibilbidea: 137,8 km / 3.600 metroko goranzko desnibel metatuarekin

Iraupen Erdiko Ibilbidea: 80,6 km / 2.100 goranzko desnibelarekin.

CD Vitoria eta Eibar B, ekaitza perfektuaren bila beste behin

Eibar FT-ko filiala eta bigarren taldea, euren ligak amaitzeko jardunaldi gutxiren faltan, denboraldiari amaiera bikaina jartzen ahaleginduko dira. Ez da lehen aldia lurraldeko Ohorezko Mailan jokatzeko duen taldea, liga irabazi eta gero, ezin igo geratzen dela justu irabazitako mailan, 3. RFEF-n, Vitoria filiala dagoelako; horregatik, beharrezkoa izango litzateke azken horrek ere mailaz igotzea, biek ezin dutelako maila berean jokatu. Une honetan, nahiz eta denboraldia kaxkar samar hasi, Eibar B-k lidergoa eskuratu du dagoeneko, atzetik duen Añorgari lau puntu atereaz, Hernaniri bost, Elgoibarrerri sei eta Oiartzuni zazpi; azken honi, gainera, 5-0 irabazi zion azken jardunaldian Unben. Liga



Eibar Urkok lidergoa eskuratu du.

amaitzeko zortzi jardunaldi falta zaizkie. Vitoria, bestalde, hirugarren dago sailkapenean eta igoera play-offa jokatzeko postuan dago. Maila horretan Barakaldok lortu du igoera zuzena eta jarraian dituen lau taldek izango dute play-offa jokatzeko txartela. Bost jardunaldiren faltan, Leioa, Vitoria, Basconia eta Deusto daude postu horietan. Vitoriak ia ziurztatuta du txartel hori, Portugalte seigarrenari zortzi puntu kentzen baitizkio. Badirudi, beraz, ohiko bidetik joango dela oraingokoa ere: Vitoriak zailago izango du bere asmoa betetzea Eibar B-k baino, azken honi nahikoa izango zaiolako lidergoari eustearekin; filialak, ordea, kanporaketak gainditu beharko ditu.

Leongo mendebalderako irteera antolatu dute Aste Santurako

Klub Deportiboko mendi-batzordekoek, ohiko bidetik, Aste Santurako irteera antolatu dute dagoeneko, oraingoan Omaña - Alto Sil inguruetara. Antolatzaileek diotenez, "beste garai bateko herririkak eta isiltasuna dira bertako osagai batzuk. Mendiek, handiak badira ere, ez dute zailtasun teknikorik;

Europako baso onenetarikoak ere han dira, hartz arre habitatarekin". Alojamentua Cordal de Laciána aterpetxean hartuko dute, Caboalles de Abajo herrian, eta prezioa 280 eurokoa da bazkideen kasuan eta 300ekoa ez bazkideenean; hor ostatua eta eguneroko afaria eta gosariak sartzen dira. Hori bai, ir-

teeran parte hartzeko federatuta egon behar da derrigorrez.

Apirilaren 6tik 10era egingo duten irteeran prestatutako egitaraua honakoa da: 6an (eguen) Somiedoko El Puertotik La Cuetara joango dira, 1.823 metroko Pico Orvia eginez; 7an (barixakua) Puerto Valdepradotik Degañara, 1.985 metroko El Miró eginez; 8an (zapatua) Viverotik Salientesera, 2.077 metroko Pico Nevadín, 900eko Cuevas del Sil, 1.434ko Puerto de la Magdalena eta 2.009ko Tambarón egiteko; 9an (domeka) Salentinosen hasi eta amaituko da etapa, bitartean 2.112 metroko Catoute gainditzeko; azkenik, hilaren 10ean (astelehena) Caldas de Luna izango dute abiapuntu eta helmuga, bidean 1.895 metroko El Negrón egiteko. Irteera gutzietarako ibilbide alternatibo errazagoak ere prestatu dituzte.



Ipuruako gimnasta jubenilek Nazioarteko Marbella Grand Prix irabazi zuten

Denboraldiari sentsazio bikainekin ekin zion Ipuruako jubenil mailako taldeak hilaren 11n Marbellan jokatu zen nazioarteko txapelketa hori bereganatuz. Eta Oinarrizko mailako boskotea ere ez zen atzean geratu, Euskadiko Txapelketan zilarrezkoa bereganatu eta Santanderren apirilean jokatuko den Taldeen Koparako txartela eskuratuta. Azkenik, gimnasta federatuek parte hartutako Gasteizko Oskitxo Torneoan Haizeder Arguiz bigarren

sailkatu zen seniorretan. Bestalde, amateur mailako Gipuzkoako txapelketetarako bigarren sailkatze fasean Ipuruak prestatutako gimnasta guztiek lortu zuten finalerako txartela: hor jubenil A taldea lehenengoia izan zen eta kadete mailako hirurak 2., 3. eta 4. sailkatu ziren 15 talderen artean. Banakako modalitatean bigarren eta hirugarren postu asko lortu zituzten, seniorretan Nidia Olasolo eta Uxue Etxeberria lehenak izateaz gain.



Eibar FT-k Fan Zonea estreinatuko du etzi Ipuruako anexoan

Domekan Ipuruan jokatuko den Eibar eta Andorraren partidua aprobeztatuz, anexoak Fan Zone bat prestatuko du, hainbat ekital-

direkin osatuko dena partiduen aurretik eta ondoren. Gune horretan online jokoak, aurpegi pintaketak, puzgarriak, 3x3 futbola, gizaki

futbolina eta photocalla izango dira protagonista, eta ez dira faltako ezta taberna eta klubaren denda ofiziala ere. Fan Zone hori goizeko 11:30ean zabalduko da partiduen ordura arte (13:45ean itxiko dute) eta, behin partidua amaituta, berriro jarriko da martxan arratsaldeko 17:30ak arte. Eibar FT-ko babesleak ere (Eibho, Caixabank, Seat Lugaritz, CocaCola eta San Miguel) izango dira ekimenean parte hartzen.



Mecalbe Eibarko bi talde nagusiek derbiak izango dituzte bihar

Mecalbe Eibar Eskubaloiko bi talde nagusiek eskualdeko aurkariak izango dituzte asteburu honetan. Ohorezko Zilarrezko mailan jokatzen duen emakumezkoen taldeak Lauko Ermuko Errotabarri taldearen bisita izango du bihar arratsaldean, Ipurua kiroldegian 18:00etan hasiko den partiduan. Ermukoak sailakpenaren erdialdean daude, eibartarren aurretik, eta ez da erraza izango garaipen-



Kadete mailako nesken taldeak garaipen handia lortu zuen, Bidasoari 20-29 irabaziz.

na lortzea. Egoera desberdinean aurkituko da seguruenik 1. Maila Nazionean jokatzen duen gizonzkoen Mecalbe, Alcorta Forging Group Elgoibar taldeari egingo baitio bisita. Elgoibartarrak azkenak dira sailkapenean, irabazitako eta berdindutako bina partidu kenduta beste guztiak galdu dituztelako. Bihar 19:30ean hasiko den neurketan Mecalbe Eibar Eskubaloikoak, beraz, faboritoak izango dira.

MARINA PEROSANZ • Zinegilea

“Muskil’ hitz gutxirekin egindako pelikula da”

Marina Perosanz eibartarra Ikus-Entzunezko Komunikazioko ikaslea da Mondragon Unibertsitatean eta ‘Muskil’ izeneko lana zuzendu du, ikaskideekin batera egindako laburmetraia. Maila handiko lana egin dute ikasleek eta aurtengo Laburbiran parte hartzeko aukeratu dute.

Laburbira euskarazko film laburren zirkuitu ibiltariak 32 herritan egongo da zazpi film labur emateko, tartean ‘Muskil’, eta Eibarren egongo ez diren arren, Ermuan ikusteko aukera izango ditugu hilaren 30ean, 20:00etan, Ermua Antzokian.

Nolako lana da ‘Muskil’?

Genero indarkeriari buruzko film laburra da. Arazo hau adineko pertsonen testuingurura eraman dugu. Izan ere, genero indarkeriaz pentsatzen dugunean ez dugu testuinguru horretan irudikatzen eta interesgarria iruditu zitzaigun gaiari hortik heltzea. Horrez gain, istorioa base-ri batetan kokatu genuen, uste dugulako baserri baten areagotu egiten dela genero indarkeriaren isiltasun hori. Horri gehitzen badiogu adineko pertsonak izanda isiltasunean hezi direla, hau da, isilik ego- tea hobe dela erakutsi dieten pertsonak direla, ba hori da ‘Muskil’. Hori erakutsi nahi genuenez, hitz gutxirekin egindako pelikula da.

Gainera, iraganera egin duzue salto, ezta?

Bai, 80. hamarkadan dago kokatuta. Izan ere, genero indarkeria telebistan salatu zuten lehen aldia 80. hamarkadan izan zen eta interesgarria iruditzen zitzaigun istorioa data hori baino lehenago kokatzea.

Unibertsitaterako egindako lana da, baina non izan du abiapuntua?

Filmaren gidoia ere unibertsitaterako lan bat egiteko sortua izan zen. Iazko kurtsoaren erdia gidoia egiteko erabili genuen eta beste erdia film laburra egiteko, baina kurtsoaren lehenengo erdian ez nintzen egon, Belgikan bainengoen. Orduan, beste ikaskide baten gidoia irakurri nuen eta gustatu egin zitzaidan. Gidoia eskaini ahal izango zidan eskatu nion, genero indarkeriaren gaia adinekoen testuinguruan lantzen zuelako eta gustatzen zitzaidalako, eta laga egin zidan. Beraz, moldatu egin genuen eta ‘Muskil’ jaio zen.

Gidoia film bihurtzeko nolako lana egin behar izan duzue?

Lan gogorra izan da. Lana taldean egin dugu, baina zerbait zerotik hastea eta, gainera, guretzat lehen film laburra izanda, ez genekien oso ondo nondik jo. Baina beno, atera da.

Zuzendari bezala nolako lanak egin behar izan dituzu?

Pelikulan parte hartu duten kideak antolatu behar izan ditut eta euren arteko lana amankomunean jarri, aktoreak zuzendu... Azken finean, azkeneko hitza nik eduki dut. Lehenengo esperientzia izateko, demaseko ardura sentitu dut.

Iñake Irastorza, Jose Ramon Soroiz eta Miren Arrieta aktoreek hartu dute parte pelikulan. Nola iritsi zineten eurengana?

Istoria sortzerakoan Euskal Aktoreen Batasunaren webgunean sartu nintzen eta pelikularako casting perfektua edu-





Marina Perosanz eibartarrak 'Muskil' izeneko laburmetraia zuzendu du. EKHI BELAR

**“Istoria
baserri batean
kokatu genuen,
baserrietan
areagotu egiten
delako genero
indarkeriaren
isiltasuna”**

kitzeko aktoreen zerrenda egin nuen, eta hain zuzen ere Iñake Irastorza, Jose Ramon Soroiz eta Miren Arrieta izan ziren gure lehen aukerak. Demaseko zortea izan genuen. Ikasleak izanda errazagoa da eurengana heltzea, egia esan.

Nolako tratua izan duzue eurekin?

Oso ibilbide luzeko aktoreak dira eta tratua oso erraza izan da eurekin. Gainera, momentu horretan Jose Ramon Soroiz eta Miren Arrieta elkarrekin zenbiltzan antzezlan batean eta askoz errazagoa izan zen dena.

Pelikulak unibertsitateko paretak gainditu ditu. Nola sortu da aukera?

Talde kide batek Laburbiran parte hartzea proposatu zuen eta animatu egin ginen, 20 minutuko film bat nahiko luzea dela jakinda. Baina tira, aukeratu egin gintuzten eta orain bueltaka dabil filma.

Ermuan erakutsiko duzue lana. Eibarren izateko aukera izango duzue?

“Iñake Irastorza, Jose Ramon Soroiz eta Miren Arrietarekin lan egitea oso erraza izan da, ibilbide luzeko aktoreak dira”

Ermukoa berezia izango da, kuadrilla-koak joango baitira. Eibarren, ostera, oraindik ez da ikusgai egongo, baina agian Asier Errasti Jaialdira aurkeztuko gara eta, hartzen badute, ikusi ahal izango da.

Fikziozko lanarekin hasi duzu zuzendari ibilbidea, baina ikus-entzunezkoetan nolako bidea egitea gustatuko litzaizuke?

Fikzioa egitea gustatuko litzaidake, baina ikusi beharko da lana dagoen ala ez. Aurtan, adibidez, Irun eta Hendaia arteko mugan dabilen iragaitzako migratzaileei buruzko dokumentala egingo dugu gradu bukaerako lanerako.



Urkiuko zuhaitzak loratzen. EKHI BELAR

Egitarau osoa
deskargatzeko:



martxoak 24 (barixakua)



"EcO"

Ymedioteatro (Jaen)

Keinuak / 60'

Antzezleak: ALEX RAMOS,
SANTOS SANCHEZ

Zuzendaria: DELFIN CASET

Jolasa da sorkuntzaren jatorria, beldurik gabe, ahalegin betean eta denak emanda botxongiloak, objektuak, eszenografia, argiztapena, emozioak, musika eta mugimendua. Ikusizko metaforen dantza, bizitzara lotzen gaituen ikuskizunean.

Uni-Eibar (19:00)

martxoak 25 (zapatua)



"Pin Pang"

Xabier Larrea

Keinu-zirkoa / 50'

Antzezlea: XABIER LARREA

Zuzendaria: TXEFO RODRIGUEZ

Umorezko zirku ikuskizuna, gure bizitza mailaren bideragarritasun ezari buruz hitz egiten duena, bizimodu honek ekariko digun kolapsoari buruz, gutxiagorekin bizitzera gonbidatzen gaituena. 5 urtetik gorako edonori zuzenduta dago.

Coliseo (17:00)

martxoak 29 (eguztzena)



"El nadador de aguas abiertas"

K Producciones & Tantaka (EAE)

Adam Martin Skilton

Tragikomedia / 90'

Antzezleak: MARKOS MARIN,
ADOLFO FERNANDEZ

Zuzendaria: FERNANDO BERNUES

Jadanik lanik ematen ez dioten eta emazteak laga egin duen 48 urteko aktore kaxkar batek igeri egiten ikasiko du trauma bat ezkututzen duen igerilari aditu batekin; bide horretan, bere bizitzako ikasgaiak garrantzitsuena jasoko du.

Coliseo (19:00)

martxoak 30/31 (egu/bar)



"Ser o no ser"

Okapi Producciones (Madril)

Nick Whitby

Komedia / 100'

Antzezleak: JUAN ECHANOVE,
LUCIA QUINTA, ANGEL BURGOS

Zuzendaria: JUAN ECHANOVE

XX. mendeko komedia handienetakoa, jatorrian Lubitsch maisuak zuzendu eta United Artists konpainiak 1942an estreinatutako pelikula izandakoa. Gezurari eta nazismoari aurre egiteko antzerkian zuen indarra erakusten du.

Coliseo (19:00)



Debarreneko Orfeoiak Ermuan abestuko du

Jose Miguel Laskurainek zuzentzen duen Debarreneko Orfeoiak kontzertua emango du domekan, 19:00etan, Ermuko Santiago Apostoluaren elizan. Orain dela aste batzuk Leonen eskainitako kontzertu arrakastatsuak eta gero, ilusio handiarekin prestatu dute asteburu honetarako emanaldia. 2016an sortu zen taldea 25 lagunek osatzen dute gaur egun eta kontzertuan estilo ezberdinetako kantuek eskainiko dituzte.



Gnat Zinemaren emanaldia gaur arratsaldean Coliseon

Gipuzkoako Foru Aldundiak, Eibarko Udalaren laguntzarekin antolatutako Gnat Zinema, III. Gipuzkoako Natura eta Ingurumeneko Zinema Erakustaldiaren baitan, gaur 19:00etan “El leopardo de las nieves”, Tibeteko goi-lautadaren bihotzean grabatutako lana ikusteko aukera izango da Coliseo antzokian. Wanda Films-ek ekoiztu eta Marie Amiguetek zuzendu duen lanak 92 minutuko iraupena dauka eta, emanaldiaren ondoren, Lexeia Larrañaga eta Alex Gutierrez natura-filmengileekin solasaldia egingo da. Sarrera doan da.



Artisten Elkartearen lanak erakutsiko dituzte Portalean

Datorren asteko barixakuan inauguratuko dute Eibarko Artisten Elkartearen erakusketa, 19:00etan Portalean. Bertan hainbat artistaren artelanak ikusi ahalko dira: “Pinturaz gain, egurrean egindako lanak, marrazkiak, eskulturak, zeramikak, grabatuak eta argazkiak eongo dira ikusgai”.

“Gazte ARTEan” erakusketa

Martxoaren 30etik apirilaren 30era bitartean eongo da ikusgai Portalean “Gazte ARTEan”, Eibar BHIko ikasleek maila desberdinetan egin dituzten lanak bilduko dituen erakusketa: “Gure ikasleek DBHko 1. mailatik hasi eta Batxilergoko 2. mailara arteko ibilbidean egindakoa ikusteko aukera izango duzue. Gai desberdinen ingurukoak izango dira: eskulanak, ikus-entzunezkoak, plastika, artisautza, marrazketa teknikoak, bolumena, adierazpen grafiko-plastikoak, marrazketa artistikoa, pintura...”.



Plazara Dantzara dantzaldia egingo da martxoaren 31n



Kezka dantza taldearen eta Udaleko Kultura sailaren eskutik, “Plazara Dantzara” saioa egingo da Erreal Plazan datorren barixakuan, martxoaren 31n, 19:00etatik aurrera. Quico Puges (Eibar) eta Arkaitz Miner (Errenteria) musikariak arituko dira zuzenean, arrabita, mandolina eta txeloarekin, besteak beste.



La Sinsorga kulturgunen feminista aurkeztuko dute

Martitzen arratsaldean, 18:30ean, Goi Argi emakume elkarteak hartuko du Martxoaren 8ko egitarauako hurrengo ekitaldia. “Gela propioak eta ahalduzko espazioak” solasaldia elkarteko emakumeei aitortza eginez hasiko da. Aurretik, Neledantzak dantza ikuskizuna eskainiko du. Eta, jarraian, Bilboko Alde Zaharrean dagoen La Sinsorga kulturgunen feminista aurkeztuko dute Andrea Momoitiok eta Irantzu Varelak.



Emakume artisten erakusketa Andretxea berrian

Astelehenean zabalduko dute Isasi kaleko Andretxea berrian “Andretxea, gure gela propioa” izenburuko erakusketa, Eibarko 12 emakume artistaren lanekin. Martxoaren 8ko Eibarko Lantaldeak prestatutako egitarauaren barruan egingo den erakusketan, “disziplinari artistiko anitzetatik, beraien gela propioak irudikatu eta ikustaraziko dizkigute” artistek. Apirilaren 30era arte egongo da ikusteko moduan, atek estreina bezala zabalduko dituen Andretxea barruan dagoen “Damaskinatzaileak” izeneko gelan.



Gaur banatuko dira Eguen Zuri lehiaketako sariak

Gaur arratsaldean, 19:00etan, egingo du Arrate Kultur Elkarteak XXV. Eguen Zuri argazki-lehiaketako sari-banaketa, bertara aurkeztutako lanen erakusketa Topalekuan zabaltzarekin batera. Lehiaketaren edizio honetako lehen saria Fernando Retolaza Loidik irabazi du, “Trulegin” izenburuko lanarekin. Bigarren saria, berriz, Bakarne Elejalderen “Taper xex” lanari eman diote, eta hirugarrena Pedro San Romanek eraman du, “Surrandiak” izeneko argazkiarekin. Epaimahaiak lehiakide guztiei beraien partaidetza eskertu nahi die, eta aurkeztutako argazkien gai eta proposamenen barietatea nabarmendu du. Erakusketa apirilaren 23ra arte egongo da ikusgai.

Musika Bandak ikasleekin joko du domekan Coliseon



Kontzertu bakoitzean proposamen berri bat ekartzeko asmoarekin jarraituz, Eibarko Musika Bandak gure herriko eta Sorraluzeko musika eskoletako ikasleekin batera eskainiko du saioa domekan, 12:30ean, Coliseo antzokian. Musika Bandak bi pieza joko ditu berak bakarrik (Tom & Jerry eta The Jungle Book), eta beste lau ikasleekin batera (The Marches of John Williams, The Beatles: 1964!, Highlights from Aladdin eta The Best of James Bond). Sarrera doakoa izango da, baina alde aurretik eskuratu beharko da Kutxabank bitartez edo Coliseoko leihatilan, emanaldia hasi aurretik.

ZERTXOBAIT ERRAZAGOA

4	9		5	3			
1					6	7	
7				1			
		8	7			2	9
5	7						4 8
6	2				8	5	
				7			2
		4	3				7
				2	1		5 4

1	2	3	4	5	6	7	8	9
1	2	3	4	5	6	7	8	9
1	2	3	4	5	6	7	8	9
1	2	3	4	5	6	7	8	9
1	2	3	4	5	6	7	8	9
1	2	3	4	5	6	7	8	9
1	2	3	4	5	6	7	8	9
1	2	3	4	5	6	7	8	9
1	2	3	4	5	6	7	8	9
1	2	3	4	5	6	7	8	9

soluzioa

S U D O K U

ZERTXOBAIT ZAILAGOA

	7		5	4		2		
				9			3	
4	9			2		6		
5							6	3
		3				4		
7	1							5
		7		3			4	9
	3			1				
		4		5	2		1	

soluzioa

1	2	3	4	5	6	7	8	9
1	2	3	4	5	6	7	8	9
1	2	3	4	5	6	7	8	9
1	2	3	4	5	6	7	8	9
1	2	3	4	5	6	7	8	9
1	2	3	4	5	6	7	8	9
1	2	3	4	5	6	7	8	9
1	2	3	4	5	6	7	8	9
1	2	3	4	5	6	7	8	9
1	2	3	4	5	6	7	8	9

Zatika emandako erantzunak osatu ahala, eraman itzazu letra zebakidunak beheko taulara, eta Inazio Goikoetxea "Gaztelu" olerkariaren lerroak aurkituko dituzu.

Erretzeko zura	1	2	3	R	R	A
Ehun urtekoa	M	E	4	D	5	A
Mexikoko zibilizazioa	A	6	T	7	K	A
Ondoko	H	U	8	R	9	N
Gozotasunez	E	10	T	I	K	I
Jainkoei opariak eskaintzeko	A	L	11	12	R	13
Kidea	L	A	14	15	16	17
Magala	A	L	18	19	20	A
Arreta	A	R	21	22	R	A
Adineko gizona	A	23	24	R	E	A

Ilargi bete	I	L	25	B	E	26	T	E
Hegazti moko zapala	A	27	A	T	28	A		
Ondasun multzo	O	29	D	30	31	E		
Esanahi	Z	32	33	T	34	U		
Haurren negar-zotinak	M	35	36	37	38	K		
Ruandako hiriburua	39	I	40	A	L	I		
Zerriak	41	42	D	43	A	K		
Jaiegun	I	44	45	46	47	E		
Lehortu	48	D	O	R	49	U		
Mugak finkatu	M	50	51	A	T	52		

1	2	3	4		5	6	7	8		9	10		11	12			
13	14	15	16		17	18	19	20		21	22	23	24				
L	E	25	26	27	28	29	30	31	32	33		34	35	36	37	38	39
40	41	42	43	44	45	46		47	48	49	50	51	52				

Martxoak 24/30

BARIXAKUA 24

INAUGURAZIOA

19:00 XXV. Eguen Zuri argazki lehiaketako sari-banaketa eta erakusketaren irekiera. Topalekua.

GNAT ZINEMA

19:00 "El leopardo de las nieves" (Zuzendaria: Marie Amiguet). Jarraian, solasaldia Lexeia Larrañaga eta Alex Gutierrez natura-filmen egileekin. Doan. Coliseo.

ANTZERKI JARDUNALDIAK

19:00 "Eco" (Ymedioteatro). 5 euro. Hezkuntza Esparrua.

ZAPATUA 25

GIPUZKOA MARTXAN

10:30/14:00 eta 15:30/19:30 Gipuzkoaren mugikortasun aktiboa sustatzeko ekimena. Haurrentzako ginkana.

10:30/13:00 Martxa Nordikoa. Soraluzeko trenbide zaharrek bide berdea.

12:00 Kultura ibilaldia: "Eibartik paseatzen duela 100 urte". Untzaga.



AZOKA SOLIDARIOA

11:00/14:00 eta 17:00/19:00 Ibarrik Misio Taldeari laguntzeko. Helmet House (Coliseo aldamenan).

EKITALDI POLITIKOA

11:30 Eibarko Sozialisten Elkartearen sorreraren 125. urteurrena ospatzeko ekitaldia. Hizlariak: Santos Cerdán, Eneko Andueza, Jose Ignacio Asensio, Jon Iraola eta Ana Telleria. Errebal Plazia.

ZAPATUKO IPUINA

18:00 "Maitasunez beteriko ipuinak", Lur Kortaren eskutik. Portalea (areto nagusia).

ANTZERKI JARDUNALDIAK

19:00 "Pin Pang" (keinu-zirkua). 5 euro. Coliseo.

EIBARKO GAZTETXIA

20:00 Eibarko Gaztetxiaren berrirekiera jaia. Mojitada eta jolasak.

22:30 Kontzertuak: Casus Belli (Mutriku Hard Rock), La Casa Fantom (Norvegiako Heavy Forest Noise Rock), Kosmai Kosin (Elektronika), TRB (Elektronika) eta DJ Zabor (goizalderarte). 5 euro. Eibarko gaztetxia.



DOMEKA 26

GIPUZKOA MARTXAN

10:30/14:00 Gipuzkoaren mugikortasun aktiboa sustatzeko ekimena. Haurrentzako ginkana.

12:00 Kultura ibilaldia: "Made in Eibar". Untzaga.

MUSIKA

12:30 Eibarko Musika Bandaren kontzertua, Eibarko eta Soraluzeko musika eskoletako ikasleekin. Coliseo.

MARTITZENA 28

SOLASALDIA

18:30 "Gela Propioak eta Ahalduntze espazioak". Neledantzaren ikuskizuna. Bilboko La Sinsorga kulturagune feministaren aurkezpena, Andrea Momoitio eta Irantzu Varelaren eskutik. Goi Argi elkarte (T. Etxebarria, 19).



EGUAZTENA 29

IBILALDIA

09:09 Zarautz-Orio ibilaldia eta baba-jana, Ikastenen eskutik. Trenaren irteera ordua, Ardantzatik (**09:11n** Estaziñotik).

ANTZERKI JARDUNALDIAK

19:00 "El nadador de aguas abiertas" (K Producciones&Tanttaka). 12 euro (8,5 euro Coliseoaren Laguna txartelarekin). Coliseo.

EGUENA 30

HITZALDIA

10:00/12:00 "Kapilla Sixtina", Jose Ignacio Olaveren eskutik. Sarrera librea. Armeria Eskola.

HITZALDIA

Eibarren sortu den Tokiko Komunitate Energetikoari buruzko hitzaldia. Portalea..

EKINGUNE

19:00 Pintxopotea eta Ekinguneraren ekitaldia. Kultu taberna..

FRAKUSKETAK

Martxoaren 26ra arte:

- "NO AL PASEO QUE NOS ENTIERRA - EKIALDEA BAI" elkarte. (Ipuuako Merkatu Plaza)
- "BIZIA ZAINTZEN - BASOIA. BIODIBERTSITATEA. BIZITZA". (Portalea).
- "LARANJEN ARTEAN" (Saioa Burutaran) eta "URTAROAK" (Maite Rosende). (Portalea).

Martxoaren 31ra arte:

- "EIBARKO SOZIALISTEN 125 URTEAK". (Herriaren Etxea).

Apirilaren 23ra arte:

- "XXV. EGUEN ZURI" argazki-lehiaketako lanak. (Topalekua).

Martxoaren 27tik apirilaren 30era

- "ANDRETXEIA, GURE GELA PROPIOA", Eibarko 12 emakume artistaren lanak. (Andretxea).

ZINEA COLISEO

1 ARETOA

- **25ean:** 17:00, 19:45, 22:30
- **26an:** 17:00 (Antzokia), 20:00
- **27an:** 19:30

“El hotel de los líos”

KOMEDIA



2023/Espainia/88'
Zuzendaria: Ana Murugarren
Aktoreak: Jose Mota,
Pepe Viyuela, Paz Padilla
Spin-off/Familiarentzako

2 ARETOA

- **25ean:** 22:30 (1 Aretoa)
- **26an:** 17:00, 20:00
- **27an:** 19:30

“Asuntos familiares”

DRAMA



2022/Frantzia/108'
Zuzendaria: Arnaud Desplechin
Aktoreak: Marion Cotillard,
Melvil Poupaud, Patrick Timsit
Anai-arreban elkartzea

ANTZOKIA

- **25ean:** 17:00, 19:45, 22:30
- **26an:** 17:00 (1 Aretoa), 20:00
- **27an:** 19:30

“65”

THRILLER-A



2023/AEB/93'
Zuzendaria: Scott Beck
Aktoreak: Adam Driver, Adriana
Gleenbatt, Chloe Coleman
Zientzia-fikzioa/Espazioa



Amaia Izeta Retolaza

5. URTEURRENA (2018/03/22)

Kolpe latzak zelan sartu eguneroko eskemetan? Ixa bi mila egun be juan jakuzen honetari; Maitasunak ein dau dizdir senarraren begietan amaren berba ta laztan seme-alaben ezpantetan. Eskuzabaltasun ikur lagunen hitz gosuetan, amamaren ontasuna lau lobaren bihotzetan. Zure ikasgaiak gudan, zu gudan gauko ametsetan, Amaia Izeta Retolaza betiko oroitzapenetan.

- ETXEKUAK -



(DONUK: Habanera)

Luis Angel “Susó” Escolar Sagredo

1. URTEURRENA
2022/03/26

“Batuetan minez
besteetan kantari
gure oroimena
maite genuenari”

- ETXEKUAK -



688 62 76 89

publizitatea@etakitto.eus



Zure senide edo lagun bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena baino lehen egon beharko da **...eta kitto!**-n. Zorion-agurrak **etakitto.eus** webgunean ere argitaratzeko aukera daukatzue.



Zorionak, aitxixa **JOSE**, domekan urteguna dozulako. Musu haundi bat etxeko danon eta, bereziki, zure billoba Ander, Jon, Luken eta Liberen partez.



Zorionak, **IMANOL**, hillaren 30ian urtiak beteko dozuelako. Ondo ondo ospatu. Musu haundi bat lagun guztien partez.



Zorionak, **HEGOI**, martitzenian 6 urte beteko dozuz-eta. Musu erraldoi bat famelixaren partez. Illargiraiño eta buelta maite zaittugu!



Zorionak, **AMETS**, gaur 14 urte bete dozuz-eta. Ondo pasa Zure eguna. Asko Maite zaittugun danon eta, batez be, Hodei eta Bihotzeren partez.



Zorionak, **KENAN** (eguztien 2 urte) eta aitaxo **KOLDO** (eguenian 37 urte) zuen egunetan. Musu haundi bat etxeko danon eta, bereziki, amatxo Aneren partez.



Zorionak, **AROA**, 5 urte bete dozuz-eta. Musu haundi bat famelixaren partez.



Zorionak, **IRATI!!!** Astelehenian 5 urte beteko dozuz-eta! Patxo haundi bat famelixakuen eta, batez be, Unairen partez.

Josefa Askaiturrieta
Gerrikabeitia

1. URTEURRENA
2022/03/26

"Bihotz-eskuak alkartu eta joana zara bakean, zure irriak, zure muxuak datorkuz gogo betean. Hau hutsunea utzi duzuna senide lagun artean, baina, amama, zure argia sentitzen dogu isilean, geugan izango zaitugu beti gu bizi garen artian"



- ETXEOAK -

Miren
Ansola Gisasola

2022/03/17

"Beti izango zara gure bihotzen martxa markatuko duen musika alaia"



- ETXEOAK -

Iragarki laburrak



943 20 67 76
publizitatea@etakitto.eus

Atal honetako iragarkiak doan dira, etxeen, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken horietako PREZIOAK, beti ere 4 ASTERAKO, honakoak dira: Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 12 euro; saldu, 17 euro. Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 12 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. Iragarki guztiak etakitto.eus webgunean ere argitaratuko dira.

1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskeraek
- 5.2. Eskaintzak

6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

1. ETXEBIZITZA

1.1. Salgai

- Etxebizitza alokagai Deban uda eta udaberri sasoiari (hila-beteka edo asteka). 3 logela, 2 bainugela eta 2 balkoi eder. Bista paregabeak. Igoailua 0 kotatik. 657795876 (arratsalde).

1.2. Errentan

- Pisu txikia alokagai Eibarren. 2 logela. Igoailurik gabe. 500 euro. 627794822 / 687078777 (Whasappez edo arratsalde).
- Pisu konpartituko nuke edo logela bat hartuko. 646131301.

- Pisu hartuko nuke alokairuan Eibarren. 2-3 logelakoa. 631907807.

4. LANA

4.1. Lan bila

- Neska euskalduna eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta etxe-garbitak egiteko. 608401590.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako (tituluarekin). Esperientzia. 632893312.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko (ziurtagiriarekin, baita ospitalean ere) eta garbiketarako egiteko. Orduka. 667060292.
- Neska euskalduna eskaintzen da etxeetan lan egiteko. Esperientzia handia. Euskal sukaldaritzaren tradizionala eta osasuneko. Mendekotasun-egoeran dauden Pertsonentzako Arretako teknikari titulua. 699473761.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko (ikastaro sozio-sanitarioarekin) eta garbiketarako egiteko. 643398596.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Orduka. Esperientzia handia. 655094780.
- Neska eskaintzen da ileapaintzaile bezala. Esperientzia automakilajearen. Baita beste lanetarako ere. 602105368.

- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko (habilitazio ziurtagiriarekin). 602490595.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Esperientzia. 692197497.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. 677328674.
- Neska euskalduna eskaintzen da arratsalde nagusiak edo gaixoak zaintzeko. 617571210.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko, kamarera edo saltzaile eta bulegoak garbitzeko. 631102067.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. 641456656.
- Emakumea eskaintzen da pisuak eta obren amaierak garbitzeko. 638421827.
- Neska eskaintzen da garbiketarako egiteko eta umeak edo nagusiak zaintzeko. 631768713.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko (agiri sozio-sanitarioarekin) eta gabiketarako egiteko. 631125127.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. 643374471.
- Emakumea eskaintzen da gauez eta asteburuetan nagusiak zaintzeko. 632950201.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita asteburuetan eta gauez ere. 631425686.
- Emakumea eskaintzen da asteburuetan nagusiak zaintzeko. 642578943.
- Emakumea eskaintzen da asteburuetan nagusiak zaintzeko. 640881328.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. 631687276.

4.2. Langile bila

- Pertsona euskalduna behar da etxeko lanetarako eta tarteka umeak zaintzeko. 619640764.
- Neska euskalduna behar da umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko. 699024156.
- Kamarera/o behar da pintxo taberna baterako. 661955980.
- Emakumea behar da goizez bi ume txiki zaintzeko. 633647568.

5. IRAKASKUNTZA

5.1. Eskaintzak

- DBH eta Batxilergoko klase partikularrik ematen dira. 678937827. Patrizia.
- Matematika, Fisika eta Kimika klase partikularrik ematen dira: LH, DBH, Batxilergo eta Selektibitatea prestatzeko. Gehienez lau laguneko taldeak. Urteetako esperientzia. 615705945. Iratxe.
- DBH, Batxilergo eta Unibertsitateko Matematikak, Fisika, Kimika... klaseak ematen dira. Banakako edo 2-3 ikasleko klaseak. Goizez ikasteko aukera. 677592509. Alberto.

6. DENETARIK

6.1. Salgai

- 1'50eko ohea eta 0'50eko bi mesilla salgai. Baita bainugelako altzarria eta lababoa ere (0'62x0'47), ispilu eta aplikkeen. Egoera onean. 683560258.
- Egonela-jangelako kristalezko mahai handia eta egurkoloreko eskritorioa salgai. Ia berriak. Prezio interesgarria. 606882043.

6.2. Eman

- Hiru pertsona laminadun (1'60ko luzerakoak) oparitzen dira. 656732584.

MGEP

MONDRAGON GO ENOLA POLITEKNIKA
JOE MIALA ARZENDIARIETA, EDOPI E.

Go! Mailako Heziketa

Zikloak

- | Sareko Informatika Sistemen Administrazioa
- | Fabrikazio Mekanikoko Diseinua
- | Sistema Elektrotekniko **Berria!** eta Automatizatuak
- | Fabrikazio Mekanikoko Produzioaren Programazioa
- | Mekatronika Industriala
- | Automatizazio eta Robotika Industriala

Espezializazio

Ikastaroa

- | Industria Mantentzearen Digitalizazioa **Berria!**

ATE IREKIAK

#LanerakoGertu



Apirilak 1 11:00etan

Maiatzak 6 11:00etan



mondragon.edu/lanbideheziketa

eta kitto!

euskara elkarte

elkartea 943 20 09 18

943 20 67 76 **hedabideak**



eta kitto!
EUSKARA ELKARTEA



Isasi, 37
943 89 92 21



Eibar BHI
<https://eibarbhi.hezkuntza.net/eu/>



Jardiñeta, 3 B
943 89 92 62